

anaitasuna

1986. URTEA OTSAILAREN LEHEN HARABOSTALDIA 397. 80 PZTA.



L.A.I.A.
mintzo da

TONI NEGRI...

E.KNOR-ek ANAITASUNARI gutuna bidali
ZUMETA: bost urte haurrei ikusten
irakasten



CAJA LABORAL. *Euskadiko*
Kutxa



AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALTAINDIA
BILBO

V/10/

27 MAR. 1980

aurkibidea



3. Aurkibidea.
4. Artikuluburua.
5. Diskoak hamabostero.
6. Antzerkiaz Gasteizen. K. Mendía.
8. Zergatik zu Ana Tere. Xabi.
10. Euskara eta lanbide heziketa. Andoni Sarriegi.
12. Hamabost egun hankaz gora. Bixer, R.O. etc.
18. Korsika burrukan. M.J. Esteban.
20. Feministak eta gainera... piratak. M.A. Landa.
22. Zumeta, bost urte hurrei ikusten irakasten M.A. Landa.
26. Elkarrizketa biziak. Hator gurekin jokatzera.
28. E. Kñor-ek Anaitasuna gutuna bidali
30. Toni Negri: Oinarriak eta bere teoriaren zenbait alderdi (1) Pello Salaburu.
34. L.A.B. Harotza.
36. O.H.E./I. Zuazo.
38. A. Arteta, mendeurrena eta omenaldia.
42. Planetei begira. I. Zuazo.
44. Fisika hiztegia. Aurreranzko pauso gotorra. Txepetxa.
46. Zenbait ohar solte. J.R. Etxebarria.
48. Egeo Itsasoko poeta. Aurtengo nobela.
50. Liburu berriak. Jon Sendagorta.
52. LAIA mintzo da. M. Aldana, T. Trifol.



anaitasuna

COORDINAKETA
J.R. Etxebarria

IDAZKUNTZA
M.Aldana, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA
J. Agirreazkuenaga, M. Aldana
A. Eguzkitza, J.R. Etxebarria,
M. Izagirre, J. Llerandi,
J. Sarrionandia, T. Trifol, I. Urtasun
I. Zabaleta

ARABA
K. Mendia

BIZKAIA
J. Llerandi, T. Trifol

GUIPUZKOA
A. Oiartzabal, I. Urtasun

IPARRALDEA
M. Lanatua

NAFARROA
B. Zabaleta, I. Zabaleta

NAZIOARTEKOA
M. Aldana, M.J. Esteban

IDAZLEAK
P. Agirrebaltzategi, J.L. Alvarez, J.
Artzelus, J.M. Artzubiaga, J. Azur-
mendi, F. Alaña, J.J. Bakedano, B.
Barandiaran, J.R. Bilbao, A. Eguzki-
tza, E. Entziondo, J. Etxebarri, J.
Iturbe, M. Kaltzakorta, X. Kintana,
S. Laffite, M.A. Landa, J. Mendiza-
bal, J. Orbezua, M. Otazurialde, M.
Pagola, X. Portu, K. Santisteban, J.
Sarrionandia, J. Sendagorta.

LANKIDEAK
K. Arko, X. Gomez, J. Idigoras, L.
Trask

FOTOGRAFOAK
A. Alday, Imanol, Txaber, R. Zarra-
beitia.

MAKETAPENA
R. Zumalabe

KOMIKIAK
X. Etxenike, Gentz, Monty, B. Zia.

MARRAZKILARIAK
Ttua Taldea

PUBLIZITATEA
ETA
HARPIDETZA
J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA
Zabalbide 68-entlo. BILBO 6
Tfnoa: (9-4) 433 5808

MOLDIZTEGIA
Estudios Gráficos
lege G.D.L. Bi-1753-1967
PRINTED IN BASQUE COUNTRY



EUSKADI ETA VASCONGADAK

Zatiak osoa egiten ez duenez gero, zatiari ez dagokioke osoaren izena. Baina Linguistikak ongiaski adierazten duenez, jendearen hizkuntzak arau bihurtzen du usuarioa, izenaren semantika zabaldu ahal izateko herostutu egiten du, izate berria ematen dio izenari. Guzti hori garrantzia ukaezinezkoa da Euskadin, bereziki zentzu politiko duen "Euskadi" izen (eta errealitate ez den) hontan.

Gaurregun, errealista gaitzen, hiru probintziak, Vascongadak, zati dira eta, politiko gaitzen, ez dagokieke osoaren izena, Euskadi. Egara txorakeriaz mintzo.

Komunikabideetan batez ere, eta zenbait eusko eta ez-eusko Euskadi kude Publikotan berdin, "Euskadi" izenaz burutzen dute hiru probintziatara hedaturik dagoen ekintza, egintza, gertakizuna, zazpi mugetara zabaldurik balegotzat hartuz, jende xeheak eta eliteak Vascongadetara loturik dagoela jakin ba dakien arren. Eta horrela, egunegonez egun, tantaz tanta, oharkabean, izenaren semantika herostutu egiten dugu eta izate berria sortzen Euskadi izenari: Vascongadetan berdin Euskadi.

Hiru probintziak Nafarroarekin elkartu arte urteak joanen dira; Herriak goa Ifarraldearekin elkartu arte hamarkada anitz, seguraski. Eta bitartean, jendearen hizkuntzak, usuarioak, arau erreal bihurtuko du hiru probintziez osatutako Euskadi, zentzu politiko zehatza duen semantikatik hornituz.

Ez da aski manifestaldietan "..... Euskadi da" oihukatzea, hori baita eguneroko usuario arrunta. Eta zatiari osoaren izena ez emateko Euskadi politikoaren alde burukatzea ere ba baita. Beraz, Vascongadetako hauteskundeak heldu direla eta, kontuz ibil gaitzen izenarekin (eta noizbait errealitate izanen diren izanak) errespetatzen.

Guztiau biziki sentitzen da Nafarroan eta Ifarraldean.



Diskoak hamabostero

K. ARKO.

**OSKARBI
EUSKARA ETA
TXAKOLINA
ELK-40**

Orain dela 13 urte; koro batetik ateratako 4 mutil eta hiru nesken artean Oskarbi taldea sortu zen.

Hasieran planteiatu zuten helburua, abestien iturburuari dagokionez, helburu bikoitza zen; alegia, kanta herrikoiak jaso eta beren harmonizazio bereziaz agertzea alde batek, eta gaurko olerkarien poemak, musika jarritz, eskaintzea bestetik. Erabiltzen zuten teknika ahotsen perfektzioan oinarritzen zen. Egun, eta diska honetan agertzen denez, instrumentu gehiagoz baliatzen dira.

Kaleratu berria den diska hau Oskarbi ateratako 5.a da. Bertan bost dira kantariak eta kitarra, flauta, flautina eta akordeoia sartu dituzte.

Grabazio honen gai zentrala "Euskara eta txakolina" da. Letra Gandiagaren "Hiru gizon bakarka" poemaliburutik hartua dago eta Oskarbi-koek jarri diote musika. Kantu luze honen mamia, dei bat da: "Jaso dezagun Euskara" eta ardatz honen inguruan doa abesti osoa. Txakolina, Euskara eta Euskal Herriaren ikurra edo sinboloa dugu, heldu gabeko ardoa baita, ar-

do garratza. Bestalde, abestiak zenbait atal ditu. 1. an "jaso dezagun Euskara" azaltzen zaigu, deitura gisa, ondoren datorren gaia aurkeztuz. Segidan, dantza alai bat eta doinu melodiko bat agertzen dira. 2. atalean "mahatsaren orpotik dator" eta "Txakolin" kantu klasikoak datozkigu. 3. ean bertsolari doinu bat eta flauta eta gitarraz jotako jazz antzeko airea, azkenean, 4. atalean, azken deiarekin bukatzeko.

Azken diska honetan azaltzen den musika mota berri bat zera da: dantzarako musika kantatua. Lau doinu ditugu era honetakoak, hots, "Agur Bettiri", "Zizperriko kalean", "Branlea", eta "Tilili eta Talala".

Lan hau osatzen duten beste abestiak zerak dira: "Herriagatik" J.A. Artzeren poema baten gain, "Arta Kama-ra", herrikoia eta "Defuntuen egunean", X. Leteren poema ironiko batetan oinarritua.



**ETORKI
DANTZA ETA
KANTU BATASUNA
ELK-39**

Ba dira 25 urte Etorcki dantza eta abesti taldea sortu zenetik. Beraren zuzendari eta sortzeile Philippe Oyhaburu dugu. Aspaldidanik euskal folkloreak arloan hasia, 1942 ean dantzaria zen Segundo Olaetaren dantzataldean. Geroztik, zortzi urtez eraman zuen aurrera Oldarren zuzendaritza.

Arrakasta handia lortu izan zuen Etorcki bere sorreran, egun ere oso ezaguna izanik. Euskal Herri osoan, eskaini dituzte beren saioak, bai hiri handitan, hala nola herri txikietan zehar. Atzerrira ere irtenaldi ugariak egin dituzte. Europa osoan, Asian, Afrikan eta Ameriketara eskaini dute euskal folklorea beren ikuspegi berezitik. Berezia baita Oyhaburuk lortu nahi izan duena; alegia, sustraiak errespetatuz, bere sorterriko folkloretik hoberena hartzea eta antzokira eramatea, egokienak kontsideratu izan dituen gaurkotze eta eraberritzearekin.

Egun kaleratzen den diska, talde honek bere historian argitaratutako beste hiruren ondorenekoa da. Bertako gauzarik aipagarriena zera da: abesteko musikarekin batera dantza eta instrumentuzko musika sartzea. Bestalde, abestiei dagokienez, bakarlari, bikote edo bostekoteak koralarekin aldizkatzeari.

Abestien jatorriek nahiko iturburu ezberdin dituzte; P. Oyhaburuk, kantu zaharrek batera, sartu nahi izan ditu gaur eguneko olerkari eta musikari abestiak: Landart, Lantziri, Sarasola, Etxamendi, Knör, Sanchez, Garin, Gachi...

Diskan datozkigun kantuetatik lau dira instrumentuz joak direnak: hiru melodia txistuz eta bestea dultzainaz. Abestiei dagokienez, gaurkoa edo modernoa dugu gaindi; hots, egun ezagunetariokoa diren musikari eta olerkari abestiak, ahotsetan harmonizatua.



Abenduaren 14etik 21era, "Nazioarteko antzerki jaialdia" eratu izan da Gasteizen. Ba zen txartel eta publizitate ausarki horren iragartzeko; Tele Norte-n ere aipatua! Laugarren aldia aurten jaialdi mota hori gertatzen zena. Antolatzailea: DENOK Kooperatiba.

Nolabaiteko indarra alde batetik, gauzak borobil ateratzeko gogoia bestaldetik sumatzen ziren eraketa horren atzean, itxuraz behintzat.

Kuriositateak bultzaturik, duela bizpahiru urtez geroztik kultura aldetik harrabotsa sortzen ari den euskal izeneko talde horren berri jakitera joan nahi izan dugu. Horretarako, Gasteizen den "Senda" ibilaldi baketsura jo eta "AJURIA ENEA" erakustokiaren atzean, han harrapatu dugu, ongi gorderik Denok-i Arabako Diputazioak utzitako etxeñoa. Toki ederrean!

Manu Aguilar, antzerki aste honetan, kanpoko arazoetaz arduratzen den Haroko mutil gaztea hurbildu zaigu. Euskaraz ez jakinki, erdaraz hitz egitera behartu gaitu. Mahai baten aintzinean jarri, eta gure arrangurak salatu dizkiogu:

— Zein da, laburki azalduz, "Denok"-en ixtorioa?

— Bi urte t'erdi daramagu. 19 presunatako taldea hasi ginen. Hemen, zeuden baldintza objektiboengatik, Antzerki independentearen mugimenduak erabakitako ideia batzuren hezurramitzen posible egiten ziren.

Gasteizen, teatro iraunkorraren sorrera dugu ideia nagusia, gerorako helburu orokorra. Baldintza erlatibo batzu behar dira horretarako, baina hemen ziren delako

aldez aurreko baldintzak. Lehen ekonomia aldetik: erakarketa baina posibilitatea ba zen, gehienbat Diputazio foralaren aldetik, ondotik, guk egindakozakeenak. Bestalde hiri nahiko metatuturaxa da hau: egimoldearen arabera publikoarekiko esperientzia garbia daiteke, hori baitugu den arazorik lehenatariko bat.

Talde guztietan bezala, barneko kultura diak izan ditugu. Lan gehienetan gertatzen da hori, kultur jiteko lanetan, bereziki kolektiboki egiten direlarik. Gaitorioa, laburki esanez, hemen daramgun praktikaren bidez, teatro independentearen kontzeptu teoriko asko deus-tzea eta beste batzuren indartzea eta miera ztea izan da; publikoarekiko harremana aipa dezagun, prezio popularrak, arazo kulturala eta ekintza pila. Kooperatiba honen lana baita bakarra, eta honetan konplexitate honetaz gertatzen dena. Toki honetan dira bakarra derdi hauk ere lantzen: haur antzerki eta jaialdi antolaketak, etengabeko gramaketa batez.

— Laguntza ofiziala aldetik, nola da talde hau?

— Konbenio bat egiten dugu erakunde probintziala eta erakunde estatutualarekin, alegia kultur ministergoa eta diputazio forala. Urtero presupostua karkulatu dugu, hirutan zatituri: parte bat kultur ministergotik, beste parte bat Diputazioatik eta beste bat guk ekartzen dugunarekin, er lanetako irabazietatik.

— Publikoaren aldetik, nabaritzen den erakarketa? Nolako harrera da?

— Bai, guk zenbanako aldaketa gertatu tsaitsua ikusi dugu. Hemen hasi ginen eguneroko jendetorria antzerki mota



gionetako jaialdia
Gasteiz

ANTZERKIAZ, GASTEIZEN



Programa

metara, teatro independente deritzan horretara —naiz eta kontzeptua zabalagoa izan— 150etatik 200era gehien jota, hel-tzen zen, sarrera debalde izanik eta baka-ririk bizpahiru emanaldi izanik urtean. Orain, Gasteiz, Araba, antzerki garrantzi aldetik, estatuko hirugarren herrialdea da, presentatzen diren ikuskizun kantitateari dagokionez. Mila lagun, nonbait han, etorri ohi dira.

— Nazioarteko jaialdi horretara deitzen dituzuen taldeak, zein kriterioren arabera hautatzen dituzue?

— Kualitatea dugu kriterio nagusia...

Guretzat, jaialdia, momentu batetako ikuskizun pila baten metatze bat besterik ez da. Urtean zehar egiten dugun programaketan, izan dira jaialdi horretan guztiz ongi sar zitezkeen ikuskizunak, baina hor dira kanpoko arazoak: beste taldeen kontratapen fetxak, haien interes ekonomikoak.

Beste kriterio bat: gama bat izan dadin, ez kolore berbereko ikuskizunak...

Datorren urterako bestalde, gustatuko litzaziguke haurrek nazioarteko antzerki jaialdia eratzea.

— Zein dira Euskal Herrian diren antzerki iturriak?

— Talde profesional batzu ba dira, Ake-larre, Cómicos de la Legua, Geroa eta gu. Bilboko Cobaya taldetik berrikitan atera den beste bat ere ba da. Gaineratekoak, zaletasun hutsez ari dira. Bi taldetan banaturik daude: gazteleraz hitz egiten dutenak, haien ikuskizunetan euskara sartzeari buruz bakoitzak bere matizak izanik, eta bestalde, euskal antzerki federazioaren gunea.

Eskolak ere ba dira: Basauriko Antzerki Eskola, Durangokoa, Leioakoa,

“Cómicos” delakoek daramatzaten eskolako ekintzak, eta guhaurk egiten ditugunak.

— Euskal kulturari buruzko zuen ikuspegia zein da?

— Lehen eragingarria, hizkuntzarena da: euskara. Gure ideia, gerora, antzerkia gazteleraz eta euskaraz egitea da, beti ere herrian den hizkuntz erlazioaren arabera. Bestalde, profesionalak izanez jarraitu nahi dugu. Horregatik antzerkia euskaraz eta profesionalki, kontraesana da, ez baita oraindik ikuskizun merkatu bat, esan nahi dut hein horretako ez aski publikorik euskaraz. Hortarik dator euskaraz lan egiten duten taldeak, afizionatuak izatea konposaketari dagokionez. Baina beste talde batzu ba dira lanari profesionalki eman daitezkeenak: bizpahiru lagunetakoak, marionetarako edo beste. Une honetan, ez daiteke profesionaliza, non ez den Eusko Kontseilu Nagusitik edo beste erakunde batetatik laguntza, euskaraz soilik aritzen den 15 aktoretako konpainia. Kultur produktu merkatuaren baldintzengatik arrunt ezinezkoa da une honetan. Ezin konpen-tsatua da, ez sarreraren bidez, ez eta “cachet”-en bidez.

Kasu bat dut bakarrik ezagutzen, Txontxongillokoa, haiek oreka mantentzen baitute alde profesionala zainduz —antzerkitik bizitzeari dagokionez— eta lanaren parte handia euskarari emanez.

— Eta “Cómicos de la Legua” delakoak?

— Horiek bai, joera askoz zehatzagoa erakusten dute euskarari buruz. Ez dakite guztiek euskaraz eta bizkitartean ba dute, ba, gauzak biltzearen joera. Argi dago, nik ikusitako emanaldian, kalitate mailaz kanpo —ez nuke nik honi

buruz hemen eritzirik eman nahi— ez dutela inondik ere arazo hau gauditu, nahiz eta ikuskizunetan euskaraz egiteari buruz guk baino bilakaera biziki luzeagoa eraman. Gogoratu behar da grabaketa erabiltzen dutela ikuskizun osoan, eta gure oinarrietariko bat da maila profesionalean mugitzea. Bestela, euskal publikoa erakartzen duzu, lokarri politiko, ideologikoen bidez, euskara kultura nazionala delakoan eman dezagun, baina ikuskizunak balio ez duelako, joan dakizkizun lortzen duzu.

— Baina zuen praktika mailan, zerbait pentsaturik al duzue?

— Euskarazko eskolak hartzen ari izan gara. Utzi behar izan genuen, ez baita posible segitzea, kanpoan gaudelarik. Orain, hemen lau bat aktore dugu prozesu horretan jarraitzen dena. Besteena... zaila... Guk onartzen dugu... beno, garbi dago herria berreuskaldunduz doan arabera, guk ere aurrera jo behar dugula.

— Eta zuk ez duzu uste honelako jaialdi batetan, herriak daraman bidea ikusirik, euskal antzerki batek bere tokia zukeenik?

— Guk garbi utzi nahi dugu, nazioarteko antzerki jaialdian, ba direla garbi, integratzeko posibilitateak, baina “Geroa” “Cómicos de la Legua” eta “Akelarre”, mementu honetan parte hartzeko posible diren hiru ikuskizunak, Gasteizen aritu izan dira jadanik eta beraz, aurtengo ez zen posible.

-----oO-----

Atseginki erantzun digu guztia Manu Aguilar-ek eta horrela bukatu da gure solasaldia; ez ordea, gure arrangurak tturrindu! Antzerkia euskaraz eta profesionalki kontraesana dela... kontrakoa direla kalitate maila eta euskara... gerorako euskaraz egitea, herrian den hizkuntz erlazioaren arabera!!!

Unibertsitatea zela eta, horrelako zerbait entsun dugula ez da aspaldi. Sasi aitzakitza jo behar dira horrela, euskara baztertzea eramaten duten arrazoiak: “Geroa alferraren leloa” dio esan zaharrak, “Geroa gezurraren leloa” askotan euskarari dagozkion gauzetan.

Miresgarria da, bai, Denok taldeak egiten duen lana antzerkiari eta kulturari buruz. Ainitzek dioen bezala kultura maila igan du Gasteiz honetan. Alde horri sentisibile gaude baina... Baina... DENOK, euskaraz izena bai, eta izana... noizko?

M. Mendiburu

ANA TERE BARROETARI AZKEN KARTA

Sergiatik zu, ana tere?

Ez zintudan ezagutzen, Ana Tere, bistaz baino. Baina atzo, osteguna, eta gaur, ostirala, ezin dut ezagutzen nuen zure aurpegiko espresioa burutik kendu... eta zuri gertatu zaizunak munstrokeria handiagoa eta gaitzesgarritasun handiagoa sartzen dit kriminalen aurka. Kriminalak bai, kriminalak, kriminalak... inoiz ez hobeto ezarrita hitz hori...

Emakumeak nahiko zapaldurik zaudete, baina zuri egin dituzten hori, zure aurpegiaren espresioa eta igartzen den izaera kontutan harturik kontextuz kanpo dago... higuingariago egiten du ekintza hori... Eta gainera hil egin zaituzte, eta horrela, era higuingarri horretan, eta astearte hartako gau beltz hartan —Txoriherrin gertatu denik gaurik beltzena iruditzen zait orain—. Eguraldiak eskenategia gertakizunen neurrian jarri nahi izan zuen, beltz, hotz, euritsu. Hainbeste maite dudan Txoriherrin honetan, nire hautotik hurbil, gainera, izan be-

har zuen derrigor? !Orain nire lurralde hau gutxiago maite dudala ematen dit. Txoriherrin halako gauza bat gertatu zitekeenik ezina egiten zitzaidan!

Behin baino sarriago nituen entzunak, zoritxarrez, halako, kasuak. Bizkaian bertan, Euskal Herrian gertatzea ere sinestezin egiten zen, hurbilago egiten bazen ere... filmetakoak besteko urrun sentitzen nituen. Baina oraingoan etxetik hurbil izan da... eta espresiorik on eta inori kalterik egin ezina adierazten zuen neska bati gainera! Ez, ez zenuen merezi, dudarik gabe, ez zenuen merezi! Bortxatu egin zaituzte eta gainera era beldurgarri horretan, hori nahikoa zen, Baina gainera burutik kendu ezin dudana espresio hori —Zamudioko autobusean ikusi zaitut, kalean...— zenuen, eta horrek eskema guztiak apurtzen dizkit, horrek gaitzesgarriago egiten du zuri gertatu zaizuna. Benetan ez zenuen merezi! Halakorik egin ezazakeen gizakirik jaio denik ere!

Ez naiz feminista, bai ostera eta gizon maila berdinean libre eta libereago izatearen aldeko, eta erakartzeko bortxatzaileen kasurik gertatzen dut biziki —gizonezkoak baitira beti bortxatzaile—. Atzo, Asuarako manifestapenean, inongo gor bat sentitzen nuen —zuri Txoriherrin sentitu eta Anaitasun adierazten nuen bezalakoa, Itziar— Zuk esaten torkidan burutara —gorrotoz horretan ninduen inpotentzia bat—. Bortxatzaile —krimenik nahiko— gain, hil egin zintuen, Ana Tere, eta era horretan... Eta zure bortxatzaile eta bortxatzaile HERIOTZA eskatzen den muin—muinetatik irteten den zure erhaileendako HERIOTZA eskatzen dakit gertakari horren errudun zure gaitzesgarritasunak bakarrik ez direna... zure gaitzesgarritasunetan klasetan banatu gaituzten hori mantentzen dutenena, eta apurtzen saiatzen ez direnena...



ba dakit. Gizarte matxista honena
 a errua, ba dakit. Ba dakit, baita ere
 gile klasetik irtenikoak izango zirena,
 uru asko, bortxatu eta hil zaituztenak,
 horrek gehiago mintzen nau, eta gi-
 te honetan boterea dutenak gehiago
 rotatzera narama, guri, langileoi,
 katzen baitzaigu parterik txarrena.
 antza hau besteko laidoa egitea ere gu-
 tokatu behar zitzaigun? iGero eta ge-
 go desiratzen dut langileok boterera
 mango gaituen egun hura!
 Baina zuontzat, ekintza hau egin du-
 onontzat, HERIOTZA eskatzen dut,
 ok gizarte honek, kapitalak sortutako
 arte honek, ustelduak baitzaituzte.
 aizionatu egin baikaituzue. Pobrean,
 alduen klasetik etorriaren, goardia zi-
 ek eta poliziek traizionatu gaituzten
 ala. Eta haien gain justizia iraultzai-
 botatzearen aldeko bagara, ezin gara
 taz errukitu. Zuok ez zarete gartzele-
 dituzten delinkuenteak —omen— be-

zalakoak, haik kapitalaren biktima dira;
 zuek biktima izatetik delinkuente izatera
 pasatu zarete berriz ere. Langile klasea-
 rentzat kapitalistak eta haik defendatzen
 dituztenak dira delinkuente. Eta kapita-
 listak defendatzeko aberatsa izan beharrik
 ez dago. Kapitalaren instrumentuak po-
 breen klasetik sortutakoak dira, biktima
 izanik delinkuente izatera pasatu direnak.
 Hori baita pobrearen kondiziorik nazka-
 garriena, pobreena, eta, era berean, po-
 brearen kondiziorik bereziena: azkatze-
 ko eskubide zuzeneko bat duela ez jaki-
 tea. Hortaz ohartzean hasia da zapaldua
 zapalkuntza uzten. Baina zuoi ez zai-
 zue hori gertatu. Zuek hil egin duzue.
 Langile bat hil duzue, langileria beldur-
 tzen duzue, goardia zibilek bezala, txaku-
 rrek bezala, biktima izatetik delinkuente
 izatera igaro zarete, zuek langileriaren
 projektua desafiatu duzue, gizartea desa-
 fiatu duzue... zuek ez duzue askatasunera-
 ko legitimitatearen sinesterik. Ezagutu

ere ez beharbada. Txakur askok ere ez
 agian. Askok sentitzen dut haiengatik eta
 zeungatik, baina gerra, gerra da. Kapita-
 lak "delinkuente" kalifikazioaz gartze-
 letan sartuta dituen gehienak, kalera bitez
 iBaina zuongan, "txakurrengan" bezala,
 langileriaren borrarero zaretetik, jaus be-
 di justizia iraultzailea!

Eta justizia iraultzailea diot, zeren nire
 gorrotoaren eta atzoko manifestazioan
 bildu ginenon gorrotoaren justizia —go-
 rrotoak ere justizia bat baitu— jausiko
 balitz zuon gain, heriotza hutsa suete
 handiegia litzateke... Manifestazioan bil-
 du zen jendeak, zuen heriotzarekin baka-
 rrik, ezin zuen kontzientzia kontziliatu,
 baretu. Kontzientziak sufrimentu luze
 bat eskatzen zigun zuontzat, eta bakoit-
 zrak, gizaki gehienok barnean dugun
 munstroeren irudimena desplegatuz saia-
 tu ginen zuen sufrimentua planifikatzen...
 Eta, benetan ere, gaurko gorputz errepre-
 sibotako torturazaleak, txiki gelditzen
 ziren... Hain sentitzen ginen inpotente, es-
 kuak poltsikoan sartuta, arrats ilun har-
 tan. Lojutik Asuara. Hain ikusten ge-
 nuen sinboliko geure manifestazio ixil hu-
 ra. iBarre egiten zenigutela ematen
 zigun!...

Txoriherri beldurrak hartu du egun
 hauetan, Ana Tere, terroreak. Zure hile-
 ta egunean, gaueko hamaiketan ez zen
 inor ikusten Txoriherriko kaleetan, egu-
 raldiak egun hartan ere eskenategi apro-
 posa baitzuen, zu bortxatu eta hil zituz-
 ten egunean bezala.

Zeintzu izango ziren aurpegiko espresio-
 ioak ekitaldi hartan, zain dut iruditu es-
 kena terrorifikoa hura, hain iruditzen zait
 eskemaz kanpo... Zure hileria egunean,
 aurpegia negar—malkoz beterik, gizon ile-
 zuri heldu hartaz oroitzen naizen bakoit-
 ztean; desesperazioak, gorrotoak eta in-
 potentziak jota: ... "asesinos", ahozkoraz
 esaten zuen, "hay que colgarlos" ... "tú
 no merecías ésto, Ana Tere". "No hay
 derecho... asesinos", esaten zuen.

... Eta automobil beltz eta luze hark
 martxa hastean: "Agur, Ana Tere, laztana,
 agur..." esan zuen.

Agur, Ana Tere, agur diot nik ere. Au-
 tobaseko espresio hura ez doakit burutik,
 ez dakit inoiz joango zaidan ere. Ez dakit
 Herriak barkatuko duen, baina nik ez dut
 barkatuko! Zurea izan dadila azkena
 —neuk ere ez dut sinesten— hori da nire
 guraririk barnekoena une hontan.

Agur, Ana Tere, agur!!!

Xabi

Ikastoletan O.H.O.a osatzen dute haurrek. Leku batzutan, B.U.P. eta C.O.U. irakasteko Lizeoak ere ba dira, baina gehiengo batek, zer jarraipen aurki dezake O.H.O.a bukatzean? Nola daude 2. mailako Ikastetxeak Euskara arloan eta euskarazko irakaskuntzan?

Ni neu ez naiz gai, guzti horri erantzuteko, baina alor bati dagokionaz, hots, Lanbide Heziketari buruz, zerbait bai, hialabeharrez izan ditudan harremanei esker.

Duela hiru urte t'erdí edo..., zenbait Lanbide Heziketa Ikastetxeetako zuzendari, irakasle, etab. bildurik, zerbaiti hasiera ematea erabaki zen eta horretarako, testugintza edo liburugintza bat hasi zen ELHUYARen ardurapean. Eragilerik indartsuena, Arrasateko J.M. Arizmendiarrieta Politeknika Ikastegia izan zen.

Kolpe hari esker, zenbait lan egin da liburugintzan eta egiten ere ari da, baina ikus dezagun egungo egoera zein den irakaskuntzari aplikatu zaion heinari dagokionez.

— LANBIDE HEZIKETA IKASKETXEAK

Arrasateko Politeknika Ikastegian, ba da irakasle talde bat, gaiak euskaraz irakasten ari dena eta zehazki honoko hauek direla esan daiteke:

- 1) L.H. 1-1 mailako mekaniko talde bat (20 ikasle) irakaskuntza guztia euskaraz egiten ari da. Gaiak: Matematika, Teknologia Mekanikoa, Fisika, Marrazketa Teknikoa, eta beste gai guztiak euskaraz ari dira ikasten. Liburu eta apunteak euskaraz dituzte jadanik gai guztietarako. Irakasleak berriz, zer esanik ez.
- 2) L.H. 1-2 mailako mekaniko eskaldunak, Teknologia Mekanikoa behintzat euskaraz ari dira ikasten dagoeneko, baina datorren ikasturtean, Teknologia ezezik, Marrazketa Teknikoa, Matematika, Fisika, etab. dena euskaraz eman ahal izango zaie aurten 1. urtea egiten dutenei.

Eta horrela urtez urte jarraituz, beste hiru bat urtetan Mekanika espezialitatekoek dena euskaraz (1. eta 2. graduak; 5 ikasturte) ikasi ahal izango dute. Ordu-rako, liburuak eta irakasleak ongi prestatuak izango dira. Beste espezialitateetan oraindik ez da hasierarik izan (elektrizitate, kimika, marrazkilaritza, administrari, etab) baina egin beharreko lan bezala ikusten da.

Horretarako eta irakasle beraiek diotenez, ezinbestekoa izan bide dute ELHUYAR elkartearen lana liburugintzari

dagokionez, nahiz eta horretarako behar izan den dirutza (gutxieneko liburu—kopuru bat ordaindu beharra, argitaratzea lortzeko) Arrasateko Ikastegiaren lepotik izan.

Argitaratu behar izan diren liburu eta apunteak, Ikastetxe askotarako balio dutenak dira eta salgai daude, baina gaurdaino dirudienez, beste inongo Langintza Ikastetxek ez du ezer egin gaiak euskaraz irakasten hasteko. Zer gertatzen da? Iraultza handiegia ote, zenbaitzuren-tzat? Ala, Euskara hizkuntza bezala irakastea nahikoa ote da diglosia gainditzeko? Non dute jarraipena Ikastoletan O.H.O.a euskaraz ikasirik B.U.P. egin behar ez dutenek? Nora begira daude Euskal Herriko Langintza Ikastetxeak?

— BESTE IKASTETXEAK

Langintza Ikastetxe bereziki izan gabe ere, ba da Ikastetxerik Ikasketa mota hori zerbait irakasten duenik eta bereziki Administraritza arloan gainera. Nik dakidanez, maila honetan bere urratsak ematen ari den bakarra, Donostiako Santo Tomas Lizeoa da. Lehen graduari dagozkion bi urteei dagozkien gaiak irakasten ditu Marrazkilaritza eta Administraritza espezialitateetan. Dagoeneko eta Euskara hizkuntzatik at. Natur Zientziak. Giza arloa, Teknologia, Marrazketa (praktika), Fisika eta Matematika zati bat ematen dira euskaraz. Besteak ere ordea, prestatzen ari dira berehalako batetan eman ahal ukaiteko, hala nola, Merkatalgo—Matematika, Kontaduria, etab. Apurka apurka eta lanaren poderioz, ari dira bada hauek ere, gaiak eta irakasleak euskaraz irakasteko moduan prestatzen.

Maila honetako Ikastetxeek ere, ez dut jakin beste inon zerbait egiten ari direnik! Non daude Langintza Heziketako lehen maila ematen duten beste hainbat eta hainbat Ikastetxe? Zeren zain daude?

Hauek denak, lehen urratsak dira, baina hasiera hartako bileretan Lanbide Heziketako Ikastetxe gehiagotako ordezkariak ere ba ziren. Jarraipenik ordea, inon ez da ikusten aipatutako bi kasuetatik at. Noiz arte horrela? Beldurra ahal dugu geure hizkuntzan zientzia lantzeko? Ala jende prestatuak ez? Eta prestatzeko asmorik?

"MURUMENDI"
Andoni Sarriegi

HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen



ARIADNE

Azkenean lortu dute. "Ariadne" izeneko suziria (kohetea) zerurantz irten zen. Hirugarren saialdian. Orduan poza eta barreak. Europa ere, Estatu Batuek eta Errusiak duten monopolioa apurtzeko bidean jarri da. Dauden asmoak oso garrantzizkoak dira. Espainiak ere parte hartu du lan honetan eta hau, lehen pauso bat besterik ez da. Diru asko gastatu dute, noski. Nola ez honelako esperimendu batetan!

Bitartean, munduko herri askotan gosea da nagusi. Gure herrian ere, Euskal Herrian, langabezia gehitzen jarraitzen da. Krisia dugu nagusi. Eta nork ordaintzen du krisi hori? Galdera tontoa; ez duzue uste?

Bestalde, ez dago behar den beste eskola; euskararen irakaskuntzarako ez da dirua heltzen; gasolina eta beharrezko diren janarien prezioak gora eta gora doaz. "Ariadne" suziria bezala. Lemoiz nahitaez jarriko digute. Horretarako lurraren kalifikazioa aldatu egin behar dela?

Ez dago batere arazorik! Gobernuak berehala zuzentzen du okerra. Herriarentzat gauzak gehiago okertuz, noski. Mungiako Udalak lanak gelditzeko esan duela? Nora doa udal miserable hori asmo horiekin? Betidanik, arrain handiak jan du txikia eta oraingoan ez da alderantziz gertatuko. Progresua bakarrik da benetan garrantzizkoa (beraiei komeni zaien progresua: dirua multzatzeko zerbitzatzen duena). Eta ez du axola noren gainetik iragan behar den.



EUSKAL PRESOAK: ZER GERTATZEN DA BASAURIKO ESPETXEAN?

Epe laburrean behintzat ez dituzte euskal presoak Nanklaresera ekarriko. Hori dio 1979.eko Abenduaren 19an irtendako EGINek. Oraindik prestatu gabe omen dago.

Estatu espainoleko espetxeetan aurkitzen diren euskal presoak 142 dira. Frantzes Estatuan errefuxiatuak daudenak 450. Demokraziaren prezioa.

Bestalde, Basauriko espetxean zenbait gauza gertatzen ari da. Han daudenaren kekek adierazgarriak dira: sufritzen duten errepresioa, bakartasuna, hotza, dutxen funtzionamendu txarra eta abar. Abenduaren 18-an, 28 preso politikoak, lehen emakumeak egoten ziren lekura eraman zituzten eta honekin, presoek diotenez, komunekin hozdura (enfrentamendua) sortu nahi dute. Aldaketa honekin batera errepresioa gehitu egin da eta goardia zibilak gartzelara sartu dira. Sorian gertaturikoa, hemen ere, lortu nahi ote dute?



IJITOAK

Zer gertatzen da azken egunotan? Eguberriak, mai-tasuna eta bakearen egunak omen dira; baina, dirudie-nez, hau, esan beharreko gauza bat besterik ez da. Le-henengo Txurdinagan eta gero Begoñako sindikatu in-guruan "pertsonek zibilizatu batzuek", ijitoei, beren atxeak erre dizkiete. Hau egiterakoan ez dute pentsatu barruan norbait egon zitekeenik. Zergatik hau? Ijitoak arraza madarikatu bat direlako? Ala gizarteak, eta gu barruan sarturik gaudela, baztertu nahi ditugulako?

Asko hitz egiten dugu iraultzaz eta honelako gauzetaz. Eta iraultza herriak egin behar badu, zergatik bihur-tzen dugu etsai herriaren zati hori? ez dira pertsonak?

Norbaitek, beren arrazakoen aurka ari direla beti eta betidanik esan dezake; baina pentsatu du, norba l horrek, beti baztertuak izan direla? Euskadin dugun problematika, beste herrietako jendeari ulerterazi nahi diogu baina ez dugu ijitoen arazoak ulertzeko ahalegi-nik egiten. Egia da gobernuak konpondu beharko lu-keela hau; baina guk ere lagun ditzakegu eta gure joera aurkakoa da.

NOIZ ARTE?



HANS KUNG

Hans Küng Alemaniako teologorik ospetsuenetakoa dugu. Antza denez, Eliza ofizialari, Vatikanuari ez zaio bere jarrera batere gustatzen eta sekulako istilua muntatu dute. Zenbait aldiz, duen ikuspegia kuestio-natu dute eta Küngek jaramonik ez egitean, gauza gogortuz doala dirudi.

Bildurra ote dute? Eliza ez da inoiz ere okertzen eta zerbait kuestionatzeak heresiarako bidean jartzen du edonor. Ezin daiteke dibortzioaz mintza. Ezin daiteke ere botere publikoen aurrean jar, zeren eta gobernu kristaua denez, hori kiristautasunaren aurka joatea litzateke. Eta elizak duen botere politiko eta ekonomi-koa?

Aspaldi, INTERVIU aldizkariak salatzen zuenez, ne-gozi zikin samarretan sarturik dabil "gure eliza mai-tea". Bestalde eta diotenez, pobreen eliza da; baina, pobreei ateratako diruarekin jokatzeko duen erakunde pribatu eta kapitalista bat dela ematen du, azalean be-hintzat. Eta barrutik begiratuko bagenu zikintzeko arriskuan eroriko ginatke, zeren eta kakatza ikaraga-ria aurkituko baikenuke.

Baina..., zerua irabazi nahi badugu... arotik pasatu behar!



ARGALARI OMENALDIA ETA GOBERNUA

Denok jakingo duzueenez, Argalari omenaldia egin zitzaion Arrigorriagan. Jende asko bildu zen. Paco Ibañezek kantatu zuen eta herriko enparantzari "Argala".ren izena ipini zioten, lehengoa, "Plaza de España", kenduz. Erabaki hau Arrigorriagako udalak hartu zuen eta bere lanetan sartzen da kaleei eta, izena jarri edo aldatzea. Baina, Bizkaiko gobernadoreari ez zitzaion hori gustatu eta lehengo plaka jartzera zibilak bidali zituen. Plaka berria beraiekin eraman zuten baina, Arrigorriagako herriak beste bat ipini zuen, zaharra udaletxera eramanez. Oraingo honetan, zibilek, udaletxera sartu eta plaka aurkitu ondoren, bere lekura itzuli zuten berriz ere berria kenduz.


Eta orain, zera galdetzen dut: Udala, izen bat jarri edo aldatzeko gai bada, zergatik hartzen da gobernu aurrekoari dagozkion arazoetan? Ez litzateke hobe udal "demokratikoak" figurin batzu bakarrik direla argi azaltzea? Zeren eta orain arte frogatu dutenaz pixka bat pentsatuz, zein ondorio atera daiteke? Ala pinu gainetik erori gara?

Bai jauna! Gauza ederra dugu demokrazia!

Plakak direla eta ez direla
Arrigorriaga istiluan
"Plaza de España" ezin aldatu

Argalaren herritxuan
Herria ari da honen izena
plazari ipini goguan
Baina zibilak hortxe ditugu
honen aurkako saiuan.

Udalak dio hau bere lana
dela baina bitartian
governadore jauna mantentzen
hasi duen hauzian
batak ipini besteek kendu
gauzak honela ikustian
nork pentsatzen du oraintxe bertan
gaudela demokrazian.



ESPAINIA ETA OTAN

OTAN munduko estatu kapitalisten bilduma dela esan genezake. Eta, Estatu Batuak dira, nola ez, gurdi honen gidaria. Azken berriek diotenez, European, missilak ipiniko dituzte Errusiarantz apuntatuz. Arrazoiak? Estatu Batuetatik horietako bat botako balute, ordu erdi beharko luke bere helburua lortzeko: URSS. Europatik aldiz, 10 minutu bakarrik. Garrantzizko abantaila, beraz. Eta zer pintatzen du Espainiako Estatuak mondongo honetan? Ba... OTANen sartuta dauden indarrei, batez ere, Estatu Batuei asko interesatzen zaiela erakunde honetan sar dadin. Eta honek suposatzen dituen gastuak? Zertarako daude zergak? Beti bezala, guk ordainduko genituzke. Izan ere, oso sufrituak baikara.



Ene ustez, Espainiako gobernuari ere komeni zaio hor sartzea; baina, baita Errusiako Estatuarekin harremanetan jarraitzea ere. Nola konpondu hau?


Bestalde, sozialista eta komunistak sartzearen aurka daude eta kontutan hartu beharreko indarra suposatzen dutenez...

Baina, ez arduratu; azkenean sartuko gaituzte: langileen estatutua sartu diguten bezala, burrukalariak gartzelan sartzen dituzten bezala, Lemoiz sartuko diguten bezala,... eta abar... bezala.

Estatu Batuek ezin dezakete permiti honelako toki hain garrantzizko eta estrategikoa galtzea. Nola daiteke hori!

Ezin gaitzke URSSren beste satellite bat bihur. Hala eta guztiz ere, konturatzen garenerako barruan gaudela esango digute.

BAIETZ ASMATU!



BIXER




MIRENTXU PURROY-ek DIMISIOA EMAN ZUEN

Aspaldian EGINen zentsura jo eta ke zebilen hainbat gauzatan. Ba genekien eta genekielako ez gara harritzen. Objektibotasuna oso zaila da Euskal Herri honetan, eta ba dirudi objektibotasuna barik, oraindik zailago omen dela aburu kontradiktorioak agertzea.

Ehundaka gutun eta eritziak guztiz zentsuratuak izan dira aspaldian barne EGIN-eko orrialdeetan. Parlamentuan parte hartzeari buruz eman behar ziren eztabaidak ez dira egin. Orain egiten badira benetako askatasunaz oinarriturik eginen ez direla beldur gara.

Jende asko omen dabil beldur besteen eritziak, baina betiko ere zera dugu: egia, zuzentasuna eta argitasuna, iraultzaile eta ez besterik ditugu, zeren eztabaidetatik argia sortzen baita. Hor barne bilatu behar dugu aspaldian dimititzeko Mirentxuk zuen zergatia.

E.H.



ESB ETA LAIAK "H.B.HORI" UTZIKO DUTE

Euzko parlamentuan parterik hartzen ez bada eta horretarako programa antierreformista, sozialista eta iraultzailea osatzen ez bada, ESB alde batetik eta LAIA bestaldetik "HB horretatik" aterako dira ondorio guztiak asumituz.

E.S.B.k dioenez, bost axola zaizkio postuen arazoak. Kezka guztia, arazo taktikoa omen da. Haien irudiz Euskal Herriaren ahotsa parlamentuan barne entzun behar da, daukagun egoera latza, erreforma gezurrezko demokrazia eta abarrekoak gogor eta kementsuki salatzeke.

H.B.k aurkeztu dituen zerrendei buruz zera ere azaldu dute: "Txillardegi euskararen aldeko defentsaz aritzen dela eta, ia zergatik ez du agerian H.B.k presentatzen dituen zerrendak kritikatzeko, ez baitago delakoetan euskara jakiten eta erabiltzen dutenetakoen askorik". "Norberaren falta eta errua besteengan bakarrik topatzea bidezkorik ez zela" gehituz. Azkenez, ANAITASUNARI ere egindako deklarapenetan, parte hartzekoa beteko ez balitz, auteskunde aurrean jarrera politiko propioa hartuko luketela jendaurrean esan ziguten.

R.O.



"EL PROCESO DE BURGOS" IKUSI ONDOREN, PENAZ

Filme ederra, nork uka. Ongi egina, ez aspergarria; bizia eta bizkorra; artista ez direnen naturaltasun urduria nabari, iraultzaileen nortasuna ageri; baina...

Praktikotasunaren izenean edo...; zabalkundearen izenean edo...; komertzialtasunaren izenean edo...; propaganda politikoaren izenean edo...; nork ote daki zeren izenean?; nork azalduko ote dit, zeren izenean izan den?; baina...

Hainbeste euskaldun ikusiz, hainbeste iraultzaile ezagutuz, hainbeste euskal langile begien parean edukiz... eta hain erdara bikaina eztzunez, penaz irten behar zinegelaatik.

Eskerrak, Julen! Agian, batek baino gehiagok ez zuela merezi esan bide zizun, baina nigatik baino izan ez bada, sinetsiezadazu merezi zuela.

Eta besteoi zer esango dizuet, ba? Ba dakit batzuk ez duzuela oraindik ikasi. Baina ahaleginik egin ote duzue? Ikasten ari bazarete, ongi da, ulertzen dut, baina begi gogor. Eta ahaleginik egin ari ez bazarete,...

Eta euskara dakizuenok, zer? Eta euskara ongi dakizuenok, zer? Ez atxakiarik bila, atxakia merkeak baino ez baitituzue. Zertarako duzue euskara?, noiz erabiltzeko? bestek Euskal Herria euskalduntzen dutenerako? Agian, taktikoki ez zitzaizuen komeni euskara erabiltzerik. Ba, taktika horrelakoa bada, ez dut pentsatu nahi, nolakoa izanen duzuen estrategia.


Bai! Penaz atera nintzen. Pena handiz.

J.R. Etxebarria



EGIZU GOGOR EUSKADIN
SOZIALISMOA

BOTUA EMAN



PSE - PSOE



KOR BURR

Urtarrilaren 6an, berri harrigarria heldu zen teletipoetatik Frantziako berriemaile guztietara: egun hartan, kotxe batetan zihoazen hiru pertsona bahitu zituzten nazionalista korsiarrek, eta herrixka baten udaletxera eraman. Bahitzai-leek, Korsikako talde baten kideak, Colectif corse delakoarenak halegia, hiru bahituak salatzaileak eta burrukatzaile anti-nazionalistak zirela esan zuten, eta horretaz gainera, Colectif corse-ko kidea den Lorenzoni jaunaren bahiketa eta erahilketa prestatzen ari zirela egun haietan.

Gutxi beranduago, eta Fesh hotetan zeuden bezero batzu hartuta, hiru ziren berrogei bat nazionalista, besteak beste, kiko solidaritatea, eta polizia paralelo kontrako beren protesta adierazteko eraberritu.

Ban, kazetaurreko elkarrizketa prestatu zen, prentsalariek eta inbitaturik ez zirenen zenbait poliziak bahituen aitortpena entzun zitzaten.

Eta bai, entzun ahal izan zuten nazionalista beraietariko batek FRANCIA (Fronte nazionalista d'action nouvelle contre l'indépendance et l'autonomie) taldean dagoela esan zuten, eta nola orain arte nazionalista kontrako egintza batzutan parte hartu duten.

Momentu horretararte, gauzak ez izan ziren txartoegi, 9ko gauen giroa hiru aldaturko zuten hiru gertaera jazo ziren lehenengoz, eta poliziak muntatuak zirela kontrol batetan, polizia eta jende-taldea bat diskutitzen ari ziren bitartean, baina hala, fusil batekin agertu zen mutil bat poliziak hil zuen. Gertaera hau zela eta, oso urduri ipini bide ziren poliziak.

IKA KAN



Beraz, giroa gero eta nahasiago zegoen, eta zegoenekoz, ia Frantziako talde politiko eta sindikal guztiek Gobernuak harturiko jarrera errepresiboa kritikatzten zuten.

11an, greba orokorrak arrakasta handia zeukan bitartean, Fesh hotolean sarraurik zeudenak, ateratzea erabaki zuten. Poliziak berehala hartu eta komisaldegira eraman zituen, talde nazionalisten nahiari uko eginez.

Orduan ere, bahituetako bat polizia-ri eramana izan zen eta juezak juzkatua izango zela segurtatu zuen. Bestalde, bi egun lehenago neska kontrolean hil zuen polizia ere atxilotua izan zen, juizioaren zain.

Geroztik, apurka--apurka, urak urbidera bihurtu dira: Dumont jauna askatua izan zen, eta pixkat beranduago, Bertollini jauna, 6an bahituak izan zirenen artean, nazionalisten eskuetan geratzen zen azkena, halebria, poliziari libratua izan zen.

Beste aldetik, igandean, hots, hilearen 13an, zenbait talde nazionalistak manifestaldi bat konbokatzea erabaki zuten; eguraldia oso txarra izan arren, bospasei mila pertsona batu ziren poliziaren jarrera salatzeke eta autonomia eskatzeko.

Eta orain, zer? Agian ez da pasatuko denbora luzerik, honelakorik berriz gertatu gabe, zeren oraingoa ekarri duenak berdin segituko baitu.

Alderdi politikoek argi eta garbi adierazi dute egun hauetan Frantzia osoan, Gobernuak daukan jarrera inora ez darabala, zeren polizia gehiago bidaltzen, eta

benetako arazoei aurpegi eman gabe, ezinezkoa baita besteengandik jarrera positiborik lortzea.

Benetan gertatzen dena zera da, estatu osoan, eta Parisen bereziki, ez dutela ezer ulertzen korsiarren kezka, arazo eta nahietaz, eta txarrena dena, hori egitera inolako ahaleginik ez dutela egin nahi.

Aldi berean FRANCIA bezalako taldeek hor dihardute, edozein egintza edo pertsona nazionalista ixil eta geldierazi nahiz. Korsiarrek jende horiek ezagutzen dituzte, baina ez dute inoiz lortu juzkatuak edo eta atxilotuak izan daitezunik. Ilegaltasunik handienez, legaltasunaren alde lan egiten dutela esaten dutenen laguntza osoa daukate askotan, eta bitartean, korsiarrei lasai eta ixil egotea eskatzen zaie, beren gauzak, eta batzutan beren bizitza ere, arriskuan ikusten dituzten artean.

Korsiarrek desberdinak dira, eta oso arazo bereziak dituzte Frantziako beste erregioekiko, eta ez daude prest Frantziak ematen dien tratamendua jasaten segitzeko; berea nahi dute, beraien herrian bizi ahal, han lan eduki, bere etorkizuna erabaki,...

Agian urtearen lehen egun hauetan egin dutenak, ez du gauza praktiko handirik lortu, baina gutxienez, estatu superzentralizatzaile honetan bizi dirinek argi ikusi ahal izan dute zernolako jarrera errepresibo hartu duen Gobernuak Korsikan, eta polizia paraleloen historioak ez direla beraien pentsatzen zuten bezain faltsuak.

Korsiarrentzat, egun hauetarako egin-tzen eta gertaeren balantzea positiboa da, herriaren kontzientziarioa biziki igon baita. Etorkizuna, parte handi batetan, beraien eskuetan geratzen da.

Maria Jesus Esteban

Euskal Herriaren nortasuna ezabatzeko.

Sabin Aranaren oroitzapena iraungitzeko.

Euzkadiren izatasun jaioberria suntsierazteko.

SABIN-ETXEA ERAITSI ZUTEN

Bai, euskal kontzientzia nazionala ezabatzeko, SABIN-ETXEA lurreratu zuten.

Baina egun geure kontzientzia nazionala inoizkorik indartsuen eta sustraituen daukagu, delako kontzientzia hau ez baita ezer abstrakturik, euskotarrok daukagun nor bere nortasunaren kontzientziaren isladapenaz eraturakoa baizik.

Sabin Arana euskal abertzaletasunaren biztailearen oroitzapena iraungitzeko, SABIN-ETXEA bota zuten.

Nola iraungiko dute oroitzapen hau, baina, euskotarron buru-bihotzetan inoizkorik bizien badago?

Azken batean, Euzkadiren izatasuna, Sabinen mezutik oldartsuki jaioa, suntsierazteko, SABIN-ETXEA eraitsi zuten.

Baina ezin ukanen dute Euzkadi ezabatu, egun bene-benetan gorakarixea goa dena beratu. Euskal Herriaren sendotzapen kementsu eta eragilea; beronek batasun etengaitzean elkartu gaitu, geure buruaren eta xedeen jabe izateko.

Ahaleginak egin zituzten gure Herritasuna, Sabin Aranaren oroitzapena eta Euzkadiren izatasun jaioberria ezabatzeko, ezereztatzen, hilerazten...

Baina ezin zuten, ezin.

Azpikeriaz eta ozarki egin zuten. 1961. ean, garabi-kamioi alde bat zela bide, SABIN-ETXEA eraisten hasi ziren.

Lan arina egin zuten. Eraikuntza deseginda, lurreraturik geratu zen. Hala ere, Euskal Herriaren etsaiak eroritako harrion ere beldur ziren. Hortakotz, noizbaiteko egun batean, goitiko aginduz, lurperatu egin ziren harriok oro, bai eta txintxorrik txikiena ere.

SABIN-ETXEA suntsitua zen. Baina orubeak zirauen. Eta orube honen gainean, SABIN-ETXEA berria eraikitzea erabaki dugu euskotarrok.

Sabinen oroitzapenerako eraikuntza; guretzat bere asmo eta helburuen ezaguterazle. Eta euskotar guzion bilgune gisa baliagarri.

COMISION
PRO-FUNDACION
SABINO ARANA



“EUSKOTARRREN ABERRIA EUZKADI DA”

Arana Goini! For Sabin

ZUMETA: BOST URTE HA IKUSTEN IRAKASTE


Bost urte ihardun du Jose Luis Zumetak, Landaberriko Ikastolan (Lasarten), 2. etapako ikasleei plastikazko klaseak ematen. Ikastolan, une hortan zegoen hutsune edo beharrari erantzutearren, laguntza eskatu zioten Zumetari. Baita berak onartu ere. Hurrekin, irakatsi eta ikasi egingo zuela pentsatuz.

Urtean igaro direla eta ez du jadanik Ikastolan jarraitzeko asmorik. Plastikazko irakasle berriei eskaintzen diela lekua, dio Jose Luisek.

Urte hauetako esperientziaren eritzi eta berriak biltzeko asmoz, zuzendu nintzaion.



"Ikusten ikastea, izan da nere lema..."



RREI



J.L. Zumeta Landaberriko Ikastolan.

A.: Gauza oso desberdina izango dela pintore izatea eta pintura erakustea deritzot, ezta?...

Z.: Bai. Nik ez dut uste maisu ona naitzenik. Baina esperientzia dudanez gero, esperientzia hori erakustea proposatu nintzen. Ez dakit oso sistema ona den ala ez. Hontaz oso gauza gutti dago idatzia eta nahiko konplexua dela iruditzen zait. Orduan urte hauetan, neure esperientziatik bakar bakarrik abiatu naiz...

A.: Nork irakatsi zion pintur J.L. Zumetari?

Z.: Niri nork irakatsi?... Beno, besteak bezala, moja eta fraideen artean hezi nintzen, eta ez ziguten gauza handirik erakutsi plastikari buruz... Betiko laminak kopiatzea, gauzak oso akademikoak, espresio aldetik oso gauza gutti. Baina, ni 17 urterekin, beste guztia utzita, pintore bezala hasi nintzen... Neure kontura ikasi nuen. Pintura begia da asko... gauzak begiratuz, kanpoan ibiliz, baina ez dut maisurik izan...

A.: Zergatik hartu zenuen, ikastolako haurrei plastika irakasteko ardura?

Z.: Beno... ba dakizu, herriko izateagatik eta, baita ere, esperientzia berri bat zelako niretzat. Haurrengandik ikasiko nukeela pentsatu nuen.


A.: Haurren mundua interesatzen zaizu?

Z.: Beren libertatea, askatasuna, sinplizitatea eta espresioa plastika aldetik, interesatzen zaizkit asko. Baina, bestela erakusteko bokaziorik ez dut. Hortara dedikatzea ez zait interesatzen...

A.: Erakusteko garaian, zailtasunak aurkitu al dituzu?

Z.: Beno, ni etorri nintzen "aldeztiko ideia" batzurekin, ezta... Eta nahi nuen klasea jostaketa bezala edo eraman. Gero, errealitatean, hau zeharo aldatu dut. Begira, bigarren etapako haurrek, nahiko eginak daude, estilo bat dute, simbolismo bat, ezta... Orduan, ez dute pintura egiten, literatura baizik. Gauzak agertu edo kontatu egiten dituzte marrazkien bidez, baina marrazkiak beti berdinak dira, istorioak ez, baina marrazkiak bai. Arbola, betiko arbola da eta etxea betiko etxea da... Beti berdina. Hori ikusi nuenean, akats hauek, literaturarako lotura hori kentzea proposatu nintzen. Eta nire sistema piska bat aldatu egin zen. Bai horregatik eta baita ere, diziplina apur bat, bakoitza bere lekuan egotea eta nolako gauzak, beharrezkoak dira lan egiteko. Jolasketa moduan klase ematea oso zaila da.

A.: Lehen esan duzunez, pintura begia da... Nola landu duzu haurren "obsesioa".



"Ez dute pinturarik egiten, literatura baizik..."

Z.: Beno, IKUSTEN IKASTEA izan da nire lema hurrekin urte hauetan. Hau da, konturatuta nago, hurrek, jendeak, gauza gutti ikusten duela. Begira zure poltsa... ni hor argiak, itzalak, matizak, konplexitate bat ikusten dut. Eta hau denau ikusi ondoren, azaldu eta espresatu egin behar da...

A.: Eta zer da zailena, ikustea ala azaltzea?

Z.: Ikustea...

A.: **Baina nolabaite ko trebetasuna eduki behar da hortara ko, ezta?... Nola landu duzu trebetasun hau haurrengan?**

Z.: Beno, errealitatetik abiatu gara beti. Gorputzetik hasi eta inguruan dauden gauzak aztertuz...

A.: Adibidez?

Z.: Eskuekin lan egitea. Eskuak postura desberdinetan marraztu, positiboan, detaile txikiak handitu, etab... Edo zirriborro bat eginez, han barruan irudiak bilatu, figurak sortu...

A.: Pintura arloa landu al duzue?

Z.: Ez marrazki arloan ihardun dugu gehien bat. Saio batzu egin ditugu pinturakin, baina guti... Argizari edo pintura lehorrekin, bai, gauza dexente egin dugu, ondo nahasten direlako argizariak bata bestearekin. Beste moetatako pintura, bolada batzuetan egin dugu, taldeka eta txandaturuz...

A.: Aurrerapenik nabaritu duzu haurrengan urte hauetan?

Z.: Errealitatea ezagutzen, aurrerakada handia egin dute. Margotzea, proportzioak, argiak, itzalak, hortan ere bai... Gero, kontutan hartu, haur guztiak ez dira berdinak. Batzuei, libertate gehiago eman behar zaie beren gisara lan egiteko, beste batzuei lagundu, baina garrantzitsuena haurrak lan egin dezala eta paper zuria bete dadila da. Hau da, konplexuak kentzea da, ene eritziz, lortu behar duguna. Ez goaz profesional batzu egitera, ulertzen duzu?

A.: Hurrek, zer pentsatzen dute zure pinturaz?

Z.: Beren aurrean, askotan pintatu du... Beraiek egiten ari diren gaia, adibidez. Egun batean, era batean, beste egunean beste eratan egiten dut... Batzutan libreago, beste batzutan lotuago. Beti beraiek egiten ari diren gauzak eta beti errealitateari eutsiz. Berez, abstraktua da niretzat helburu nagusia, baina ez naiz abstraktuarekin ausartu. Komentariarik?... Beno, denetatik. "Ez du antzik" edo "bai, antza dauka" eta hola-ko komentarioak. Gauza lotu samarra egiten badut, denok esaten dute oso ondo dagoela, baina gauza askatuago baldin bada, orduan ez dute baloratzen.

A.: Urte hauetan, zuk pintatutako koardroetan, haurren mundu hori nolabait agertzen dela uste duzu?

Z.: Ez dakit, zihur esateko... Inkontzientki zihur asko bai, baina kontzientki behintzat, ez. Askotan etxean egin dudana, hurrekin egin dut ikastolan. Ea zer egiten zuten jakiteko. Esate baterako, collage saio batzu...

A.: Eta erresultatuak?

Z.: Ba, 30 posibilitate ezberdinak!

Mariasun Landa



Carlos Garaikoetxea a todo el pueblo vasco

Karlos Garaikoetxeak euskalerrri osoari

El día 9 de Marzo, nuestro Pueblo va a elegir su primer Parlamento, el primer Parlamento Vasco. Se acerca pues, una fecha que puede ser decisiva para nuestro futuro como comunidad.

Y esa fecha histórica nos llega en un momento en que la violencia, el caos social y la crisis económica nos están afectando con especial dureza.

Y el Estatuto de Gernika, que puede representar la solución política que hoy necesita el País, sufre los primeros ataques, antes de su puesta en práctica.

Pues bien; por serias que sean las dificultades del momento y por muy lamentables que resulten las incomprensiones y aún los incumplimientos de sus compromisos por parte del Poder Central, nada ni nadie va a debilitar nuestra voluntad de arreglar esta situación, porque estamos dispuestos a reconstruir este País en todos los órdenes.

Las elecciones al Parlamento Vasco nos ofrecen esa oportunidad. De la voluntad que nuestro Pueblo exprese el 9 de Marzo saldrá el Gobierno que necesitamos para abordar con éxito la normalización y la solución de los problemas que tan fuertemente nos afectan.

Porque las metas a alcanzar son tan importantes y decisivas, necesitamos un Gobierno con una mayoría fuerte en el Parlamento. Yo os invito a que, entre todos, formemos esa fuerte mayoría.

Porque así, por fin, vamos a poder gobernar nosotro mismos.

Epailaren 9an gure Herriak bere lehenengo Legebiltzarra, lehenengo Eusko Legebiltzarra hautatuko du. Herri geranez gure etorkizunerako behinbetiko garrantzia izan dezaken egun baten aurrean gaude beraz.

Eta, egun hori, gogorkeria, gizarte-anabasa eta ekonomia-larrialdia gogor bai gogor erasotzen ari zaizkigun une baten datorkigu.

Eta Gernikako Estatutua, Herriak gaur behar duen politikazko aterape izan ditekenez hori, eginbideratu baino lehen ere lehenengo erasoak jasaten ari da.

Horra bada; ezerk ez inork, ez aldi honetako zailtasunen larriak ez Erresuma-Arduralaritzaren ulertu ezinak eta emandako hitzari huts egiteak berak ere, tamalgarri direnarren, ez du egoera hau onbideratzeko dugun xedea ahulduko, Herri hau alderdi guztietatik birreikitzeko erabaki indartsua hartuta bait-gaude.

Eusko Legebiltzarreko hauteskondeek ematen digute aukera hori. Gure Herriak epailaren 9an erakutsi dezan nahiak sortaraziko du gauzak onbideratzeari eta hain gogor erasotzen diguten arazoei aterape bat ematen hasteko hain beharrezko dugun Gobernu.

Lortu beharreko helburuak hain garrantziko eta erabateko direla, Legebiltzarrean gehiengo handi bat izango duen Gobernu bat behar dugu.

Hörrela, azkenean, gure burua jaurri ahal izango dugulako.


JOKOAREN BALDINTZAK

● INKESTARI DAGOZKIONAK

- o) Irakurle guztiek parte har dezakete.
- 1) Makinaz edo eskuz idatziriko hiru orialde bidali beharko dituzu.
 - 2) Euskaraz. (Edozein euskalkiz). Ez kezkarik izan ortografiaraz edo eta joske-raz. Zuzentzekotan geuk zuen dezakegu.
 - 3) Asterizkoz doazen hamar galderei beharrezkoa duzu erantzutea.
 - 4) Gehiago galdetzeko eta erantzuteko libre zara.
 - 5) Izengabetasuna gordeko da inkesta guztietan. Hala ere bidaltzaileak kar-
netaren zenbakia, zuzenbidea eta izena bidali beharko ditu. Alderantziz,
ez da argitaraturik izanen.

● IKERKETARI ETA PUNTU EMATEARI

- 1) Irakurle guztiek parte har dezakete.
- 2) Anaitasunako erredakzioa, idazleek edo eta kolaboratzaileek ezin dute atal honetan parterik hartu.
- 3) Postaz, eta bidaltzailearen izenarekin batera, ematen dituzun puntuak gar-
bi azaldu beharko dituzu, puntuazioaren laukitxoan gurutze bat markatuz.
- 4) Berdin egizu ikerketari dagozkion galderekin, laukitxoan gurutze bat mar-
katuz.



PUNTU EMATEA

Elkarrizketa honi zuk zenbat puntu ematen diozu?
Ingura ezazu biribil batez

-5 -4 -3 -2 -1 0 +1 +2 +3 +4 +5

Zure uztez, elkarriztatuak ondoko adina duke:

16tik — 23raino.....	<input type="checkbox"/>
23tik — 31raino.....	<input type="checkbox"/>
31tik — 39raino.....	<input type="checkbox"/>
39tik — 47raino.....	<input type="checkbox"/>
47tik aurrera.....	<input type="checkbox"/>

Zure ustez elkarriztatua:

emakumea da.....
gizona da.....

Zure ustez elkarriztatua:

hiri handi batean bizi da.....
herri handi batean bizi da.....
herri tiki edo baserrian bizi da.....

Zure ustez elkarriztatua lanbidea duke:

Esku langilea.....
langile espezializatua.....
Arrantzalea edo Baserritarra.....

Goi mailako kuadro teknikoa (ekonomista, inje-
niadore, perittoa, medikua, abokatu), irakaslea,
kazecalaria, etab.....
Behe mailako kuadro teknikoa (Bulegoalaria, idaz-
karia, ajentea etab).....
Entrepresa tiki baten jabea.....
Maizterra.....
Goi burjesia.....



* Euskarak etorkizunik aldu?

—Ni ez naiz UCDkoa. Batzutan, etorkizuna edukiko duela pentsa-
itzen dut. Beste batzutan ezetz. Euskararen etorkizuna E.A.Jn dago. EAJn eta UCDn. Hizkuntzak az-
kenez zera duzu: Elkar harremane-
tarako tresnak. Tresna horiek, haiek
dute, beraz...

* Anaitasuna aldizkariari bagagoz-
kio, gai berririk sartuko zenuke?

—Ba dakit zaila datekeen duzen ahalbideaz konturatuta. Hala here, behin behineko erreportai interes-
garriak irekiko nituzke nik, beneta-
ko euskal aldizkaria izan dadin. Sail berriak argitaratzekotan, kolo-
rez eta guzti erotismo erdi porno-
grafiko, erdi kontsumista, erdi
iraultzailea argitaratuko nuke. Se-
guru baietz, askoz gehiago salduko
zenuketeala.

* Anaitasunaz balorapen bat
egin ezazu mesedez.

—Nahiko berezkoa da Anaitasuna. Arraroa ere bai. Noizbehinka ar-
gitaratzen dituen guztietatik zerbait
interesgarri ba dago tartean. Pre-
sentazio aldetik —ona— dela irudi-
tzen zait. Euskal prentsa salbatze-
ko, erroilo guttiago eta bizitasun
gehiago behar da.

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetero

Hamabigarren
zenbakiaren gai nagusia

MEDIKUNTZA EUSKADIN

Osasunaren egoera eta
etorkizuna

Osasunaren sozializazioa

Psikiatria

Medikuntza paraleloak

Medikuntza prebentiboa

Botika -gintza

-----0-----

900 pta. urtean. 275 alea

-----0-----

Eskabideak eta harpidetza:

JAKIN Aldizkaria
Ategorrieta hiribidea
(lehen Gral. Mola), 23, 1a.

Donostia/San Sebastian
Tel. (943) 27 17 13

E. Knör-ek ANAITASUNA^{RI} gutuna bida

Agur!

Hona aspaldian idatzi gogo nuen gutuna, egun, grebak eskaintzen didan betaz baliaturik, egingo dudana.

Ikusi dut 395. alea eta nola ez den jadanik nire izena ageri Arabako òrdezkarri. Bazen garaia. Beheraxeago, idazleen artean ere ez naiz ageri, nehork deusik esan ez didalarik...

Ezer baino lehen, oroitarazi nahi dizuet garbi adierazi nizuela, honetan hasi nintzenean, ezin nuela bileretara joan, ezta aldiro idatzi. Horregatik saiatu nintzen, alferrik, hemen langileak bilatzen. Huts egin nuen, noski, nahi nuen apurra ere bete ez dudalako. Baina bizpahiru aldiz igorri dizkizuet argitarakizunak eta ez dira aertu. Adibidez, **aditz laguntzailearen sinopsia** eta **Ernest Sabater**-ekin solas luzeska. Ez argitaratzeaz gainera, ez didazue oraindik arrazoina azaldu. Zuek esan hori gizabidea den.

Neure kexak ez dira horrenbestez agortzen. Erredakzio-kontseilukoa nintzelarik, ANAITASUNAK Estatutoaren kontrako jarrera ezin nabarmenagoa hartu zuen, nirekin kontatu gabe (telefono-dei bat edota gutun bat aski zen). Jakina, Bilbotik gauzak era batera ikusten dira. Bitartean, arabar askok garbi genekusan Araba autonomiatik kanpo gertatzeko arrisku larria. Baina beldur naiz ez ote naizen alferrik ari, zuok egia honetaz sinestarazteko.

Beste aldetik, nola ez egon gehienbat ados J. Agirreazkuenagarekin?

Zeharo makurtua dago ANAITASUNA pentsamolde batetara. Bide batez, munduko zer aldizkaritan erantzuten zaio kritika zabal bati ale berean?

Ez naiz bakarria pentsatzen ANAITASUNA halako underground-jitea ari dela hartzen, edo hartua du aspaldixodanik.

Hau ote da Euskal Pizkundeon behar dugun aldizkaria, zeinetan lesbianak, abortoa (389, 390 eta 391 garren alectan -azken honetan bi aldiz!), marikak (393-394garrenean) eta abar gai nagusiak bait dira?

Ez naiz ni, berriro esango dut, egokiena, aldizkariaren (ustezko) akatsak adierazteko, zeren oso lan ttikia egina bait dut. Baina aldizkaria maite-maite dut, Euskal Herriaren alde egin dezakeen ona dut gogoan ongi iltzaturik, inola ere ezin ahaztu. Otoi jarrai lanean, emazue eta emagun euskal kultura eta euskal politika eta abarren berri, inolako filtro eta alderdikierarik gabe. Berau egingo bagenu, eta finantzak arnasberrituko, dudarik ez, ANAITASUNAK zabalduko luke bere argia Euzkal Herri osoan barrena, inongo euskaldun alfabetatu kultoak uko edo muzin egingo ez liokelarik.

Ongi izan eta goraintzi,

E. Knör

Oharra: E. Knörrek gogoratzen digunez, berak idatzia du "Kataluña urte bete elebitasun irakaskuntza" titulutzat zuen artikulua eta 396.alean argitaratuta. Moldiztegiaren oker batengatik artikulua izenik gabe argitara egin zen. Bestalde, aurkibidean barne, K. Mendiak izenpeturik agertzen da. Bata zein bestea nahigabezko okerrak izan dira, artikuluaaren egiazko egilea E. Knör izanki.

anaitasuna

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide honetara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Barikua eta kontu irekia..... Tfnoa.....

EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginenez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidalitz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:
Urteko harpidetzaren bidez.
(2000 a 100000) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.

TONI NEGRI: OINARRIAK ETA BERE TEORIAREN ZENBAIT ALDERDI

(I)



Sarrera.— Asko ere asko ez da artikulu hauen planteiamenduarekin ados egongo. Ez du axolarik, batek zerbait idazten duenean, bere sorbaldak prest prest uzten baititu kritikak jasotzeko. Lehengo eta behin punturen batzuek utzi nahi nituzke argi: ondokoa idatziaz, ez naiz negri-anoa, Negriren teoriako zenbait gauzarekin konforme baldin banago ere. Hau eskribatu baldin badut, gaur egungo teoriarari nagusi baten ideiak plazaratzeko egin dut. ez haren posturak defendatzeko. Ez naiz ni nor didaktikoki egin dudana ala ez esateko, baina ideia batzuek dibulgatzea hizkuntza erraz baten bidez hartu dut asmoz, dibulgazio guztiek daramaten arriskuak ongi ezagutzen badituzte ere. Dibulgazioetan gauzak deformatu egiten dira, eta ez da erraz zerbait idaztea norberaren eritziak baztertuz.

Bigarren puntua artikulu hauen estruktura-egiturari dagokio: lehen partean historiari egokitzen zaio, azken batean, mugimendu sozialek planteiatzen dituzten arazoak ez direlako gaurkoak; oso zaharrak baitira eta historian koka daitezkeelako inon baino hobeto. Ez dut nahi izan bezala egin. Niretzat askoz ere interesgarriago zitzaidakeen problematika hori planteiatzea eta ikusi gero non dituen oinarriak: partiduaren problematika, gizar-

tearen analisisa, mugimendu asanblearioak, ezkerrearen planteiamenduak, etab. Hori egin beharrean historiarekin sartu naiz zuzen zuzenean, gainetik bederen ikus daitezkeen arazo hauen jatorriak. Horrek ez du kentzen hurrengo artikulu zenbaitetan beste problematika horiek ez ukitzeko, ezkerre (eta ez Euskadikoa bakarrik) murgildurik dagoen problematika ikusgarria sakontzeko. Baina ez gaurkoan: aunitzengatik lehen partean erraza, astuna, jakina izanen da; pasa daitezela bigarren, bigarrenean azaltzen direlako T. Negriren teoriak. Eta norbait ez badago konforme historia honen interpretazioarekin (denok ikusten baitugu historia gure begi partikular diskutigarriak direla medio) idatz dezala eta eritziak idazlumaz neur daitezke. Horiek, bada, eta ez beste, ditugu artikulu bion parteak, artikulu honen parteak:

- lehenean, historikoki kokatu problematika osoa
- bigarrenean, Negri azaldu.

Balio dezatela baita, bi artikulu hauek, Europaren aurpegian dagoen errepresio intelektualaren aurkako protesta bezala, nik, behinik behin, ez baitut sinesten Negriren "terrorismo"an.

Lehen partea:

TONI NEGRI. Historia berritzen

Negri preso

Italiar intelektual honek gartzelari pasatu ditu azkenengo eguberriak. Hila bete zenbait darama espetxean, joan zen Apirilaren 7an Italiako Alderdi Komunistakoa epaikari batek haren gartzelamendua agindua zuenetik, "froga argigarriak" zirela eta, Aldo Moreoren hiltzearen inpsiratzaila edo egilea izan zitekeela eta, Estatuaren kontrako borroka hartu beharrezkoa zela esaten zuelako edo, nik ez dakit zenbat gauzarengatik hartu zituzten Negri eta beste intelektual asko. T.N. prestigio handiko gizona zen testuinguru batzuetan, bereziki Paduako Unibertsitatean, han baitzegoen irakasle bezala (katedraduna), baita Europako ezkertiar mugimenduetan ere eta ez zuen denbora luze Ipar Ameriketako Unibertsitateetan barrena ibilia zela hitzaldi batzuek ematen. Italiara itzuli zenean denon gogor egin zuten.

Askok pentsatu genuen orduan kontu honetako punturik garrantzikoena: ilun zaudela; ilun baino, beltz. Askok pentsatu genuen Italiako formazio sozialek jasaten duen krisi ekonomiko eta politikaren ezaugarri berri bat genuela, hots, estatuaren bortxakeria irrazionala beste maita berrira pasatua zela: errepresio intelektualera. Hobeki esateko, ezkerrearen errepresio intelektualera. Errepresio intelektual honen induktoreen aurrean Parlamentuan dauden indar politiko guztiak Alderdi Komunistak zutelarik buru (Komunistak horiek). Orduan hona zenbait beste esango liguke norbaitek, zenbait gezur eta zenbat errepresio ideologikoa bultzatu dituzten sasikomunistak horiek Negri preso mantentzeko, ez da bileraz erabaki esaten. Orduan hona hartu izan dituzten ezkerreko irakasle gehienak itzalean sartu dituzte oraindik frogatzen. Orduko frogak argi haiek ez dakigu zertan geratu diren; bai, asmoa zein zen dakigu: Parlamentutik kanpoko ezkerreko indar politikoak desburutu. Indar politiko hauek "terroristatzat" jotzen dituzte beste alderdiek: poliziako agintariek batek zioen bezala, Italian bazeuden 100.000 terrorista bihurtu daitezkeen pertsona hurbil (!).

Kontu honetan Alderdi Komunistak erabili izan dituen bideek ez diete beldurkeriarik eskubitarren indar errepresio erabili ohi dituzten medioei: beste irakasle bat, Franco Piperno, Parisen hartu zuten han ikusi eta ezagutu omen zuten ko oportetan zegoen langile komunistak batek. Polizia abisatu. Orain arte salatu ("chivato") esan diegu horrelakoei.

dirudi Italiako sozialista eta komunista ofizialek burjeseriaren kontrako harmak, ezkerreko ideologiari apuntatu dizkiotela. Konturatu ere, kontura gaitezen Italian markatzen dituztela urratsak eta "euro-komunismoa" eta antzeko teoriak hantxe jaio zirela. Gero eta larriago ikusten dugu intelektualeen aurkako joera Europa osoan: lumaren askatasuna zalantzan dago, batzuentzat arriskugarriago baita boligrafoa, amerikarrek hemen sartzen dituzten buru atomikodun missilak baino.

Negriren lanak

Espainiako estatuan gutxi ezagutzen da T. Negri. Gehienbat "El Viejo Topo" aldizkariok eman dute argitara eta dossier berezia eskaini zioten duela zenbait hilabete. Horretaz aparte, aldizkariok berek T.N.ren liburu bat ere, entseiu liburu bat, atera zuten: "Domeinua eta sabotaiak". Dena den, irakasle honek, ba ditu beste liburu asko eta artikuluko mordo bat Europako aldizkari anitzetan idatziak. Ez ditugu hemen zerrendatuko, liburudendetan ezin aurkitu ditugulako: T. Negriren teoriaren zenbait puntu azaltzeko "Domeinua eta sabotaiak" liburuan oinarrituko naiz, teoria hau maingua geratuko zaigula jakinaren gainean egonik, idazle bat aztertzekeo garaian, haren lan osoak ezagutu behar baitira.



Non kokatzen dugun

Normalean, ezker aldeko teorilariak hiru zutabe nagusitan kokatu izan dira historian zehar:

1.— **Anarkistak.** Hauen hasiera Bakunin-en garaikoa dugu, Lehen Internazionalaren denborakoa. Marx-ek bere lanak aurreratzen zituen bitartean, beste mugimendu zabal bat hasi zen hedatzen: anarkismoa. Langileriaren erakundeaz, estatuaren teoriak, partiduaren kontuak, gizartearen anabiaz, ez zetozen bat anarkismoa eta marxismoa. 1870. urtearen inguruan egin ziren kongresu zenbait Europako langile mugimendua batuz eta kapitalismoaren aurkako estrategiak eztabaidatuz. Makina bat arrazoiengatik (barruko arrazoi ideologikoak, arrazoi pertsonalak) eta kanpoko beste arrazoi batzurengatik (politikoak, gerra franko-prusiarra, etab.) mugimendua apurtu egin zen eta anarkismoak eta marxismoak bide diferenteak hartu zituzten.

Anarkismoa bilakatu zen geroago puntu zehatz batzuetan. Horien artean, beharbada nagusienak, Espainiako CNT zelakoan gorpuztua eta Frantziako mendehonen hasierako sindikalismo iraultzailean. Anarkismoa sindikatuen eremuan bilakatu zen baina ez zuen sekulan ahaztu politika maila: dena den, ideologia hau kontraesan batetan zegoen preso, hau da, ez zen gauza izan teoriako partidu ezaren nahia eta praktikazko nolabaiteko erakunderen baten beharra bideratzeko. Azkenean, anarkismoa botuak ematera joan zen 1936.eko "Frente Popular" zelakoan. Botuak demokrazia burjes batetan! Hori ez zuen inoiz ere onartu anarkismoak eta paradoxaz, botu anarkistek esker irabazi egin ziren hauteskunde haiek.

Gerra garaian, anarkistek eta komunistek kontzepzio desberdinak eduki zituzten Errepublikari buruz. Anarkistentzat behar beharrezkoa zen iraultza soziala egitea gerra egiten zen bitartean, hau da, anarkistek ez zuten Errepublika defendatu nahi iraultza soziala baizik. Komunistek berriz, Errepublika defendatu behar zela zioten, hots, faxismoaren kontra Errepublikako instituzioak salbatu eta gero, faxismoa desegin ondoren, planteia zitekeen iraultza soziala. Hau burutzeko komunistek ez zuten dudarik eduki mugimendu anarkista desegiteko eta horrela ikusten dugu nola Franco irabaziz eta irabaziz zebilenean, komunistak eta anarkistak elkarren artean zanpaka ari zirela: eta hau ez dugu metafora. Lister-ek bere Zalditeria dibisioak erabili zituen Aragoako kolektibizazio anarkistak deusezteko. Espainiako zenbait tokitan benetazko esperientzia sozialistak bultzatu zituzten anarkistek, ezagutzen ez diren esperientziak.

Dena dela, ezin da nolana epaitu ko-

Pirinioetan amaitzen diot honekin.

Mugimendu eta ideologia anarkista ez zen garai horretan bukatu: baina bai amaitu ziren mugimendu honek orduraino erabili zituen formak, antolaketa formak. Ikusiko dugu nola sortzen diren geroago itxura berriko forma batzuek, beharbada erdi-anarkistatzat joko beharko ditugun formak.

2.— **Sozialistak.** Lehen Internazionalaren Kongresuak apurtu zirenean, ideologia marxistek beren bidea hartu zuten eta Internazional berria asmatzeko gogoak etorri zitzaizkien. Internazional honek mugak eduki behar zituen: lehen Internazionalen langileen mugimendu guztiak sartzen ziren. Bigarrenean, baldintza bat bete behar zen nahi eta ez: partidu baten beharra, hots, sistema kapitalista desegiteko langileen partidua eratu behar zen, Parlamentuetara sartu eta botuen bidez, boterea kendu burjeseriari. Garai horretako (1880) Marxen idazlanak zabaltzen hasten dira, ideologia koherente bat bezala agertzen zirelarik. Maila honetan ezin ziren gobaratu Marxen lanak eta Marxen etsai politikoen lanak: marxismoa beti izan da sakonago eta zehatzago gizartearen problematika aztertzerakoan. Hala eta guztiz ere, Marxen lanak filtratuak agertzen dira: filtro horren izena Engels da eta Engels izan zen marxismoa dotrina bezala dibulgatu zuen lehen idazlea. Idazle trebea, erraxa, Marxen lanen interpretazio bat eman zigun, Gaur egun oraindik ere dirauena. Interpretazio horrekin sakralizatu egiten zuen Marxen pentsamendua, eta nola kristauek Bibliara jotzen duten, hala joango dira marxistak historian zehar klasikoen liburuetara, han erantzuna balego bezala, han baleude bezala gure galde guztien soluziobideak. Engels-en lanetako bat, marxismoa deformatzea izan zen. Kanpu horretan sortu ziren eskuineko aldetik marxismoaren lehenengo erreformistak eta errebisionistak: Kautsky, Bernstein eta beste zenbait. Hauen lana Marxen idazlanak handik eta hemendik aldatzea izan zen, momentuzko komenientziari egokituak, gaur egun Marx-ik gabeko marxistek edo Lenin-ik gabeko alderdi komunistek egiten duten antzera.

Mugimendu guzti honen ondorioz sortu zitzaizkigun Europako Alderdi sozialistak: langileen partiduak, botuen bidez Parlamentuetaz jabetu nahi zutenak. Horrela sortu ziren Espainian ere PSOE eta UGT sindikatua. Ideologia hauen bultzatzaile bezala Marx bera har dezakegu, urrundik ez bada ere. Hala ere, partidu hauen erreformismoak bidea munduko leheneko gerra garaian (1914) geratu zen argi eta garbi: interes nazionalak nagusitu zitzaizkien klase interesei eta honela ikusten ditugu European zehar partidu nazionalistak gerrakredituek botua ematen beste sozialisten aurka joateko: so-

zialistak sozialisten kontra. Frantziako interesak Alemaniako interesen aurka. Eta hori dena marxismoaren izenean! Horrek ez du esan nahi sozialista batek baino gehiagok ez zuela hau ongisko ikusi. Ikusi ere, ikustekoa zen. Komenigarria izaten da teoriak diskutatzea baino historiako datuekin jokatzeko, gaur egun sozialismoak eta komunismoak eztabaidatzen dituen arazoak historiaren ardatz nagusietan ikusten baitira behin eta berriro odolduak izan direla. Aspaldikoak ditugu erreformismoaren eta iraultzaren kontuak. Ba dirudi, hala eta guztiz ere, gaurko aurkikuntza dela askorentzat hau. Eta ez digu merezi Rosa Luxemburg-en hiltzarekin sartzea orain hemen.

3.- **Komunistak.** II. Internazionalaren teoriak apurketa gogor bat sofritzen dute 1917. ean. Munduan lehenengo aldiz, langileen alderdi bat, alderdi txikia, estatu apartatuak nagusitzen da. Inork espero ez zuen lekuan, atzeratuta zegoen tokian, Errusian, soldaduek eta nekazariak "soviet" erakundeak oinarriturik hankaz gora botatzen dute Tsar-en sistema. Lehenik hango burjeseriarekin elkartuta, gero bakarrik, azkenean bi iraultzaren ondotik Errusiako Alderdi Komunita botereaz nagusita: Lenin, Trotsky eta beste zenbait urramoldez pasatzen dira historiara. Zer egin? Iraultza hura ez zen goiz batekoa: 1905.etik aurrera borrokan ziharduten sovietei esker irabazi zen, baina lehen momentutik geroago izendatuko zuten Alderdi Komunitak (botxebikiek) hartu zituen estatuko hariak.

Europa eta mundu osoko langileriarantz itxaropen berria sortu zen. Gaur egun nekez neur dezakegu iraultza horren inpaktua mundu zabalean. Lenin-ek Marxen teoriak onartu zituen eta bi puntu teoriko berritan zituen bilakatu: Estatuaren teoria eta imperialismoa. Dena den, Lenin ez dugu teoriko hutsa eta bere lanik aipagarrienak estrategia maila-

koak ditu. Era berean kanpoko eta barruko problematikaren zuzentzeari ekin zion. Kanpoan, gerra amaitu; barruan edozein eratako disidentzia erraustu. Horrela desegin ziren Tsar-en ejerzitoko koardoa, polizia eta ezker aldetik sortzen ziren mugimenduak ere, haien artean anarkismoa. "Trotsky-k, harmada gorriaren buruak, menperatu zituen Kromstadt-eko marinela, esaterako.

Gerra amaitu ondoren, barruko disidentziak zuzendu eta gero, Errusiak beste bi problematika zituen aurrez aurre:

- alde batetik, mundu kapitalistak egiten zion boikotari erantzun. Honen oihartzuna dateke Stalin-ekin hasi ziren plangintza ekonomikoak, politika gogorra, etab., nolabait ere muga hertsia haietan aurrerapen ekonomikoaren bila, Errusiako iraultza huts ez zedin.
- bestetik, nazioarteko langileria-aren plataforma berria bilakatu. Nahitaezkoa zekusaten internazionala indartzea eta horregatik asmatu zen III. Internazionala. Internazional hau, I. Internazionala eta II. Internazionala baino hestuago: I. a. a. a. zen, II. ean partidua onartu behar zen, III. ean ez zen partidua bakarrik, **partidu komunita** onartu behar zen bide berria legez. Munduko partidu guztiak Errusiako alderdi komunistaren menpean egon beharko zuten eta Errusiako iraultza indartzea zen haien lehenbiziko helburua. Horretarako, beste nazioetako iraultzen interes txikiagoa zuten eta Errusia zen nagusiena. Errusiara hurbildu ziren anarkista eta sozialistek alde egin zuten baldintzapen hauek ikusirik. Argigarriak ditugu horretarako Angel Pestañak egindako informak. Anarkistek beren aldetik jarraitu zuten, eta sozialisten artean apurketa gertatu zen: batzu II. Internazionalari jarraitu zitzaizkion eta besteak III. ari: azken hauek eraiki zi-

tuzten nazio guztietan partidu komunistak.

Errusian bertan, bidenabar, Lenin ondoren etengabeko burokratizazio prozedura nabarmentzen da Stalin-ekin, haia maika problemari ekin behar ziolako eta honetarako beharrezko ikusten zuelako botere pertsonala indartzea. Hau dena, Stalinen nortasunari erantsirik, diktadura (ez proletarioaren diktadura) diktadura pertsonal bihurtzen da eta hurbileko lagun edo etsai guztiak baztertu egiten ditu Stalinek, baztertu, jarraiki, gartzeleratu, hil. Trotsky izan zuen etsai politikoa: trotsky-ren ustez iraultza baztertu guztietan hedatu behar zen, ez Errusian bakarrik, "Iraultza iraunkor"aren teoria laria dugu Trotsky. Horregatik sortu ziren, komunismoaren barruan, mugimendu trptstlostal: lehenik Stalinen kritikako geroago etsaiak. Hau dena argi ikusi zen Espainiako gerratean POUM eta PCEn arteko erlazioekin. Non ote dago Alderdi Nin?

Munduko trotskistak batzen dira gero IV. Internazionalan. Horregatik deitzen dugu Internazional trotskista. Internazional honen buru bezala E. Mandel agertzen da gaur egun, ekonomia mailan pentsalari marxista argienetako bat.

Errusia bizkortzen ari den bitartean Txinan, Mao Zedong-ek burjeseriarekin aliaturik (Ibilaldi Luzean) japoniarren menperatu egiten ditu. Japoniarren ondoren burjeseriari irabazten dio jokoak eta Txinako Alderdi Komunitak ere bertara hartzen du.

Horrela, lehen garaiko marxismoa, arduraren arituko da urtez urte: Marxen teoriak lehenik, Lenin geroago, Mao Zedong azkenik. Historia, dena den, ez zaigula men amaitzen eta harriturik ikusiko du gure berriro ere Errusiako Alderdi Komunitak eta Txinakoak hautsi egiten dituztela. Karren arteko harremanak: anarkismoa, marxismoaren apurketa, sozialisten apurketa, komunisten apurketa. Honen oihartzuna ikusten da berehalaxe mundu zabalean horrela sortzen dira alderdi sozialistak, komunistak, trotskistak, marxistak, Leninistak, protxinoak, etab. Ba dirudi gure herriko mugimenduak deseginak daudela. Hau baitugu, zorionez edo zoritzarrez, langileria-aren historia: zenbat eta erakunde indartuago, zenbat eta antolakuntza gogorrago, klase interesak partidu iraultza bihurtzen dira praktikan. Baina zer da eta teoria argiago, zabalago, ba dirudi efektibitate murriztazago duela.

Teoria praktikan preso. Edo alderdi batziz. Kontradikzio honetan dago murriztazurik ezkerria: partiduen historia, komunisten diktzio hauen historia dugu, krisi honen historia. Eta norbaitek pentsa lezake komunistak ez daukala intzenbiderik.

(Segitzea)

Pello Salaberri



Francisco Piñero

ELECCIONES PARLAMENTO VASCO 1980
EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 1980

BIZKAIA



PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI (P.S.O.E.)k

Aurkezten dituen ondoko autagaiei botua ematen diet:

- D. Ricardo García Damborenea
- D. José Antonio Saracibar Sautua
- D. Juan Manuel Eguiagaray Ucelay
- D. Juan Miguel Moreno Lombardero
- D. Alberto Pérez García
- D. Fidel Luis Orcajo García
- D.^a Araceli Valerio Rodríguez
- D. José Luis Ibáñez García-Velasco
- D. Enrique Antolín San Martín
- D. Luis Egea Martínez
- D. Nicolás Redondo Terreros
- D. Manuel Fernández García
- D.^a Blanca Estrella Ruiz Ungo
- D.^a Ana Ariz Vidondo
- D. José Antonio Alvarez Bouzón
- D. Pedro Luis Ruiz de Alegría Rogel
- D. José Andrés Paul Tejedor
- D. Jesús María Rodríguez Orrantia
- D. José María Alfaro Atienza
- D. José Luis Arroyo Gutiérrez



Berehala II Biltzarrean aurkituko gara, eta ponentziak irakurtzen ba da lana frango.

Esan behar da, lan interesgarriak ba daudela bere 70 horrialdeetan eta sakonak ere bai, ekonomiazkoetan, e.a.

Lehen sailean, politika egoera aztertzen da, eta lehenik datorren ponentzia ikusirik ba da zer pentsa. Irakurri ondoren eta nork izenpetzen duen ikusi eta, besteetan agertzen duen joera bera nabari dela esan behar. Ez da behar ezer berririk.

Sarritan pentsatu izan dugun bezala, halakoek hobe lukete carrilloren CCOO eta PCEan sartzea, etxean bezala aurkituko bailirakete.

Hau ez da gero espantu bat.

Zertarako ote dute horrelakoek alderdi eta sindikatu abertzale batean egoera?

Zertarako ote dute horrelakoek alderdi eta sindikatu iraultzaile batean egotea?

Zeren, bere burua abertzale eta marxista-leninistatzat publikoki daukanez, hobe luke espantu horiek utzi eta teoria praxiarekin elkartuko den lekuan sartzea.

Bide berean, bere burua abertzale eta marxista-leninista, hau da, iraultzaile

duen alderdiak, ez du horrelakoen beharrik, barneko homogeneitatea tratatzen baitio.

Lan honen pasarte batek hala dio: *"... línea a seguir por los sectores revolucionarios del movimiento obrero debe consistir en apoyar reformas graduales, que de una forma encadenada nos posibiliten avanzar hacia la transformación de la sociedad y la liberación nacional"*.

Guk egia esan, ez dugu mirakuluetan sinesten.

Noiztik (eta gure egoeran) graduzko erreforma batzuen bidez, sozietate berri baten bidean aurrera gintezke? Noiztik bide hontatik, sekula historian nazio askatasuna lortu da?

Eta hau denau Moncloako Estatutua bedekintzearren: PNV-ko posibilismo berbera, alegia.

Eta beste hau: *"Los trabajadores demostraremos una extraordinaria capacidad de resistencia, pero a pesar de todo, no llegaremos a deshacer de una forma sustancial los planes de la oligarquía tanto en el orden político como en el económico"*.

Beraz, zertarako ezer egin, ezingo badugu nahi dugula lortu?

Horrelakoek, beste batzuek bezala, ez dute iraultzan sinesten, ez dute sozialismoan sinesten; ez dute iraultza egin nahi. Zertarako beraz marxista-leninistak direla esan? Hobe lukete Marx-en errebisioa egin dutela esatea eta hori: errebisiozaleak direla aitortzea.

Eta oraingoz, bi pundu hauek bakarrik aipatuko ditugu.

23.horrialdean hasi eta, ba da beste lan bat *"Características del sindicato"* *"Por un sindicato sociopolítico, nacional y de clase"* izena duena.

Gu ponentzia honekin ados gaude, baina ba dira bi pasarte zuzendu beharrezkoak: 24.horrialdean dio: *"Por un lado asistimos a un innegable proceso de transformación de la clase obrera, como consecuencia de la crisis capitalista..."*

a la sobreexplotación el de los sectores de servicios"...

Eta 26.horrialdean: *Esta base (de posiciones sindicales revolucionarias) abarcaría desde los trabajadores de servicios que sufren unas condiciones de sobre-explotación por la crisis y los que ven empeoradas sus condiciones hasta ahora de privilegio, pasando por los trabajadores de la pequeña y mediana industria, ... hasta incluso de la Gran Industria..."*

"Kapitalisten empresa pribatu ala estatuletan, ordaindutako lan bat egiten duen intelektualitatea, langile klaseko zati bat bezala hartuz, errebisiozaleak, langile klaseko zati kontziente eta iraultzaileena bezala agertzen dute, beren alderdietako izaera intelektual-burjesari 'proletal' kolorea eman nahiz; zeren berezki sozial basea batez ere, intelektual eta langileria aristokraziaz osatua dago, eta hala, langile klasean liberalkeria eta erreforma intelektualista itsasten dute, klase burrukatik eta sozialista iraultzaile baztertzen dutela.

Errebisiozaleek garbiki agertzen dute, "gaurko" klase kontzientzia daramana, "langile klase berria" dela, injinadoreak, teknikoak eta goi-graduko langile eta emplegatuak osatua alegia". (Bajram Abdiu).

Noiztik zerbitzukoak, proletalgora baino esplotatuagoa izatea ote dakar?

Hori hala balitz, gaur nagusiak (faxismoren protekzionismoaren babesean, sobera lapurreta egin eta langileria superesplotatu ondoren) beren enpresetan gaitzen ariko lirateke eta ez guttiago irabazten...

Noiztik pribilegioak galtzeak (automatikoki) zanpaketa dakar?

Bestalde, jakina, langileria bere aliatu zihurrekin loturak ukan eta mantentzeko behar dituela: zerbitzukoekin, nekazariekin, arrantzaleekin, e.a.

"Produktzioaren automatizazioa dela eta, langile klasearen zeregina guttiuz doala burjes teoriari, gaurko errebisiozileen teori anti-marxistak lotzen zaizkie."



zereen hauek diotenez, gaur, sozialismo-
rako burruka, proletalgoak ezezik, beste
klase eta indar batzuek gida dezakete, ha-
la nola, burjesieriak, burjes-ttikiak, inte-
lektualak, e.a.

Ikusmolde hauek, munduko mugimendu iraultzaileari kalte handia egiten diote, zeren herriko zenbait klasetxoengan, gazteengan, estudianteengan eta intelektualean ideologiazko nahasketa sortzen dute, hauek, iraultzarako langile klaseak eta bere Partidu marxista-leninistaren zuzendaritzaren beharrez ez baitute kontzientzia argitua". (Ruga e Partise).

Josebak dioen ordena, beraz, alderantziz jarri behar dugu: lehenik, lantegi handietako proletalgoa, gero lantegi erdiko eta ttikiak, eta azkenik zerbitzuko langileak, e.a. Lehentasun honetan saiatu behar gara.

Gizonak, gizonik zapalduko ez duen gizartea benetan nahi badugu, ez gara kasta berri bat sortzen jarriko...

Ba da beste lan bat 44. horrialdean baliagarria iruditu zaiguna, nahiz pundu guztietan bat ez etor. Azpirozek izenpetzen du eta "Linea de acción sindical" du tituluz.

Honetzako eta guretzako ere, sindikatu iraultzailearen oinarria, LAB-eko lantokiko komitean dago. Fabrikako komitea biltzen da eta diskutitzen ditu bere arazo konkretuak, asanblada prestatu eta langileak iraultzarako bidean jartzen.

Komite honek formatu, prestatu behar du, lana probetxugarria izan dadin. Hauek asanbladaren gidatzaileak izango dira; eta horretarako Partiduko militanteak izan daitezke: hobe hala badira. Azken pundu honetan ez dugu uste Azpirozekin bat gertotzekin.

Gero komiteen koordinaketa, e.a.

Jakin dugunez, Errederian, era honetara funtzionatzen du LAB-ek.

"Iraultza prozesua, produkzio alorrean betetzen da, produkzioan, fabriketan, zeren han erlazioak zapaltzaile eta zapaldua, esplotatzaile eta esplotatuaren artekoak dira, eta bertan ez da libertaterik langilearentzako, ez eta demokraziarik ere". (Gramsci).

Eta honetan muntatzen ez badugu sindikatuak, LAB beste edozein sindikatu klasekoa bezala izango da: erreformista, burokratikoak, e.a.

Zentzu honetan, 1979.eko Ekainean presentatu genuen lan bat: "Los comités obreros de LAB"; gero "Las funciones del Partido"; eta Irailean beste bat, "El Partido". Ez dakigu zergatik, baina oraindik ez dute hiruetatik bat ere publikatu.

Nahiz hemen guk sobera eskematiko-ki, sinplistegi azaldu, lan hauetan zabalki agertua da LAB-eko komiteak, e.a. zernolakoak izan behar duten.

Azkeneko V teman, gaurko krisi ekonomikoa aztertzen da, eta esan behar da

leninen "El imperialismo, fase superior del capitalismo" ez dela zahartu. Funtsean, hark egindako analisisa agertzen da lan hauetan. Liburu honek ba du pasarte bat, batzuek kontutan hartzen ez dutena, eta hala dio:

"Imperialismoa finantziako kapitalaren eta monopolioen garaia da, eta hauek alde guztietatik menderapena eta libertate eza besterik ez dakarte. Erreakzioa auzartki, nahiz bat hala beste erregimen politikoa ukan; baita ere kontradikzioen ozpintze latza: hau da joera honen ondorena. Nazio zanaketa eta anaxioak agiteari kartsuki lotzen zaio; hau da, nazio independentzia bortxatzerara (zereen, anaxioa, nazioek autodeterminatzeko duten eskubidea ukatzea besterik ez da). Hilferding-ek inperialismoaren eta nazio zapaketaren arteko lotura ongi agertzen du,

bide batez erresistentzia gogortzea eta ugaritzea ere bai". (Lenin 156/157 or).

Hasieran genioen bezala, ba dirudi batzuek ahantzi dutela hau; ez dutela gogoratu nahi. Horrelakoek, ez da harritzekoa, zorioneko Estatutu horrez kontentatzea: erregionalismoarekin alegia.

Prozesu historiko guztiak ba du bere dinamika eta egoera konkretua; duenez baliatzen jakin behar dugu.

Adibidez: Maok Txinan eta Ho Txi Minhek Viet Namen inperialismoaren aurka iraultza egin zutenean ez ziren armada erregular bat sortzen hazi, gerrilla muntatzen ihardun zuten. Zergatik ote?

Iraultza egiteko arma da handi bat, animalia bat behar zen, zergatik ez beraz hortik has?

Ba dakizue zergatik.



LABek, iraultzarako tresna bat izan behar du. Hala ez balitz, zertarako nahi dugu?

eta hala dio: 'historiarik gabeko nadaiteke'. Zeuden sozial erlazioak jausten dira, 'historiarik gabeko nazioen' milaka urteko nekazarien bakartatea hondatzen da, kapitalisten ezinasera bultzatuak direlarik. Horrela, kapitalismoak berak, poliki-poliki, zanpatuei askatzeko medioak ematen dizkie. Eta nazio hauek, beste denboretan Europako nazioen amets handia zen hura nahi izatera pusatzen ditu: ekonomiazko eta kulturazko libertatea ukaitako Estatu nazional bat eraikitzen alegia. Bistan denez, independentziatzako mugimendu honek, Europako kapitala dinbili-danbala jartzen du, batez ere honek gorde nahi dituen leku baliotsuetan, aberatsenetan. Egoera honetan, Europako kapitalak han irauteko, menderapena jarraitzeko, bere indar militarrik handitzea, ugaritzea beste biderik ez du'. Guzti honi erantsi behar zaio, hau ez dela berriketan agertutako herrietan bakarrik gertatzen, zaharretan ere bai: inperialismoak anaxioak egitea, nazio zanaketak aurrera eramatea eskatzen duenez; eta

Gure sindikalista ohoretsuak ordea, ez dute gonbaraketa honen lezioa ikasi, eta gaur sindikatu handi bat, (nagusiengandik) ongi ikusia den sindikatu zintzo baten bila dabilta.

Ez dakite historiaz ikasten.

Iraultza egingo bada, guk hemen iraultza egingo badugu, kasu konkretuak erakusten digu orain gerrilla hasi eta jarraitu behar dugula; nahiz bestea ez ahantzi.

Guk LAB indartu behar dugu, ez haundinahikeriaz, bai militantez.

LABek, iraultzarako tresna bat izan behar du. Hala ez balitz, zertarako nahi dugu?

Eguneroko prolemtan oinarriturik, langileriari kapitalismoaren esplotazio eta zanaketa ikuserazteko nahi dugu.

Hau nahi ez dutenek, ongi egiten dute EIAN sartzean. Bakea eman dezatela, eta ez etsaien probetxuz kaka nahasten ibil.

HAROTZA

Objektu Hegalari Ezezagutuak

1979.eko Abuztuaren 17an, goizaldeko ordu bat t'erdietan, Val Johnson, 35 urtetako Marshall County-ko sheriff-aren ofiziale bat etxeratzean zen bere polizi autoan. Minnesota-ko lautadetan dena iluntasuna da, kotxearen argiak izan ezik. Noizbehin etxalde isolatu baten argiak. Zerua, oskarbi, izarratua. Urrutian, hiru-lau kilometrotara, argi bat zolu gainean mogitzen. Lurreratzerakoan aireko bat problematan zegoela pentsatuz, hara zuzentzen da. 50 minutu beranduago, sheriff-aren bulegoan alarma martxan jartzen da: irratiz, Johnson-en abots deformatuak: "Zerbaitek kotxean jo nau. Ez dakit nola azaldu... Arraroa..." "Ondo zaude?" "Uste dut baietz... Ez dut ondo ikusten..."

VAL JOHNSON-EN BERTSIOA

Beste kotxeak heldu zirenean, nahaste berraste bat aurkitu zuten: kotxea itzulita zegoen, faroak hautsita, antenak bihurtuak, haizetakoa apurtua... Johnson-en egoerak eriauto baten beharra erakusten zuen. Bere erlojua eta kotxeko erlojua martxan zeuden, baina besteen erlojuak baino hamalau minutu atzeratu zebilen. Medikuen eskuetatik pasatu ondoren, eta shock-a pixka bat gaudituz, Val Johnson-ek bere informea eman zuen:

"Etxera nindoalrik, hiru-lau kilometrotara, argi zuri eta distiratsu bat, faro baten antzekoa, eta zelaitik metro t'erdia ikusi nuen. Aireko txiki bat lurreratzeko problemekin zelakoan, harantz abiatu nintzen. Bi kilometro eginda nituenean, eta argia beste bi kilometrota-

ra zegoenean, nireganantz ziztada batetan etorri zen, kotxea topatuz. Argia kotxe barruan ikusi nuen, oso distiratsu. Begiek min egiten zidaten. Ez nuen motorrik ez besterik entzun. Begiak eskuz estali nituen eta epe labur batetan bolante gainean geldirik geratu nintzen. Nire senera bueltatu nintzenean, kotxeko motorra geratuta zegoen, eta sheriffaren bulegora deitu nuen".

75 kilometrotara dagoen U.S. Air Force-ko base batetakoek ez zuten ezer sentitu, ez eta Abiazio-zerbitzuek ez eta zerbitzu meteorologikoeak.

OBJEKTU HEGALARI EZEZAGUTUAK

Honelako istorioak ehunka eta milaka kontatu daitezke. Zeruan edo Lurrean ikusten edo gertatzen diren fenomeno azalezinak "Objektu Hegalari Ezezagutuak" izendatuak izan dira (izen hau ingelesezko "Unidentified flying objects"-tik dator), eta, noski, era askotako gertaerak batzen ditu. Historian zehar betidanik ezezagutuak izan dira fenomeno hauk, baina inoiz ez zaie garrantzirik eman. Are gehiago, mende honen hasieran, OHE bat ikustea nahiko zen, lekukoa zoroetxe batetara eramateko.

Denborarekin, fenomeno hauk estudiatzen hasi dira talde ezprofesional batzuek, eta lehendabiziko pausoa gertaerak pilatzea eta klasifikatzea izan da.

Horrela, Allan Hendry-k, OHE-ak Estudiatzeko Zentrukoak, 1307 gertakari bildu ditu eta, kritikoki analisatuz, 113 benetan ezezagutuekin geratu zen. Hauk gainetik ikusiz, berehala kointzidentzia





deigarri batzu nabari dira: 70 o/o gaez gertatu ziren, eta 86 o/o urrunean edo distantzia zehaztezin batetara gertatu ziren. Hurbiletik ikusitako OHEak itxuraz oso desberdinak ziren: zigarroa, diskoa, puntuak, biribilak,... "Plater hegalaria" izena ez zegoen ez guztiz ondo jarria!

ETA OHE-ETAN, ZER?

Eskeptikoentzat nahiko da gertaera gehienak baztergarriak direla jakitea denak alboratzeko baina defendatzaileen ustez, nahiko da bat egiazko izatea munduko eta gizarteko egitura aldatzeko. Baina problemak ugari dira. Hegaztiez, txoriez eta intsektu batzuz gain, hegaka berez egiten dutenik ez dago, eta beharrezko da OHE horik zerk higitzen dituen eta nork zuzentzen dituen jakitea. Eta hemen hasten dira fantasiak eta ametsak.

Askoren eritziz, OHEak Lurrean bertan ateratzen diren hegazkinak dira, edo estalpean mantendu nahi diren gobernu batzuren esperientziak edo zibilizazio ez-kutu eta ezezagun batzuren hegazkinak. Horrela espionaiak eta arkeologia eskartuta ikusten dira fenomeno hauk azaltzeko.

Haatik, azalpena, beste asko Lurretik kanpo aurkitzen saiatzen da. Horrela, jatorria Artizarrean -Venus-en-, Martean, Eguzkian -Mitologia zaharretan bezala-, eta eguzki-sistematik kanpo, planeten ezagumendua aurreratzen doan arabera, Harrigarria da, halaber, OHEnauta horik ikusi ahal izan diren, beti giza-antza edukitzea. Burua, beso biak, hanka biak, gorputza, lur honetan dagoen gizonaren antzerakoak dira, eta ez giza-antzerakoak.

izerakoak. Gizazentrisismo hau ez da garaieran nabari, eta ipotxa buruhandiak (metro bat ingurukoak), normalak eta erraldoiak (sei metrotarainokoak) ikusi dira. Honek giza aberearen eboluzioari problema asko ekarriko dizkio: Nola da posible Unibertsio osoan izaki inteligentek giza antzera bilakatzea?

Baina kanpo-bisitariak baditugu aztarra gehiago eduki beharko genuke. Esate baterako, harritzeko da honelako hegazkinak ezbeharrak ez edukitzea. Ba, bai. Ezbeharrak eduki dituzte, eta sarri. Baina, antza denez, sekretu militarren pean daude gordeta, bai hegazkinak, eta bai OHEnauten aztarnak.

OHE-AK SERIOYAN?

Munduan zehar gertaerak azalezinak biltzen dabiltzanek pisu bat lortu duten mass media-k erabiliz. Bermuda-tako triangela, bidaiak espazial ez azalduak edo gaizki azalduak, zibilizazio galduak, zerritik datozen mikrouhin periodikoak... OHE-ren bidez azaltzeko posibilitatea ikusten da. Horrela zenbait gobernuak (Kuwait, New Zealand,...) komisio ofizialak eratu dituzte, eta beste batzu ikerketa zentruak eratzen ari dira.

Are gehiago fenomeno hauk internazionalak direlarik, Nazio Elkartuen Erakundeak (U.N.O.) talde espezialista bat eratu da informazioa eta ezagumendua elkartrukatzeke, eta, behar bada, kongresu internazional bat egiteko.

I. Zuazo

Arteta

MENDEURRENA ETA OMENALDIA

Bilboko museoan, eta banco de Bilbao-ko erakustaretoan, Artetaren obra dugu erakutsia, nor, artelaririk handiena izan zitzaigun, bere mendurrena baida, omenaldi gisara.

Artetaren obraren hautapen zabala erakusketa bietan, bakarrik, Madril-eko "Banco de Bilbao-n" egin zituen muralak faltatzen naturalki, baina present egoten ere, fotoetan. Baita ere Banco de Bilbao-k argitaratu du liburu bat hemen agertzen diren marrazkiak eta koadroak, handik atarata izaten.

OHAR BIOGRAFIKOA

Aurelio Arteta y Errasti, Bilbon jaio zen, 1879-ko abenduan, bigarren egunean. Arteen eta ofizioen eskolan hasten da ikasten hamalau urteekin. 1894an Valladolid-era abiatzen da bere familiarekin, bertako Artes y Oficios-eko eskolan, bere formazioa jarraitzen, eta Luciano Sanchez Santare irakaslearekin ezagumen artistikoa sakontzen. Miño argitaletxean jartzen da "ordenanza" bezala, bere lanarekin familiaren ekonomia laguntzeko.

1897an, "San Fernando" "Bellas Artes-eko" eskola nagusian sartzen da, beste euskaldun pintoreekin, alkartzen: Elias Salaberria, Jacinto Olave, eta Lopez Mezquita han zeudelako haik ere, pintura ikasten. Pintatu bakarrik ez du egiten, beste bizibideak saiatu behar duelako bizitzeko: honela, brotxa lodiko pintore egiten da, litografoa, grabadoen konponentzaila eta "Teatro real-eko" konparsa. 1902an, Bizkaiko diputazioak konbokatzen dituen beketara aurkezten da eta Angel Larroque-rekin batera irabazten du, "Un accidente de trabajo" koadroarekin. Quintin de Torre euskal eskultorea-

rekin, Paris-era heltzen da pintatzen eta ikasten.

1905ean, bidaia bat egiten du Italiatik zehar. Urrengo urtean, Bilbora itzultzen da, lenengo erakusketa egiten, "Delclaux" aretoan.

1911n, "Asociacion de artistas vascos" elkartearen fundatzailearen bat bezala agertzen zaigu. 1919an, Parisen berriz, Arte espainolaren erakusketa koadro bi aurkezten ditu, urrengo urtean, Londresen ere Pintura espainolaren erakusketa parte hartzen koadro batekin: "marineros torpedeados". 1921ean, Ricardo Bastida arkitektoa, Madril-eko Banco de Bilbao-rako freskoak agintzen dizkio.

Hortik aurrerantz, pintore ezagun bezala egingo zuen lan, erretratoak egiten, bere nortasuna aldatu gabe eta betiko apaltasunaz bizitzen. 1924an, Arte modernoko museoren zuzendaria egiten dute, eta 1925ean beste fresko handi bat egiten du, Logroño-n, Seminario Diocesano-n.

1930ean, pinturako lenengo saria irabazten du, estatu osoko saria, bere "Bañistas" koadroarekin.

1932an, "Los hombres del mar" olioarekin, Bellas artes-eko erakusketa nazionalen ere lenengo domina irabazten du. 1934an, Venecia-ko arteko bienalera bialtzen du, "Los hombres del mar" koadroa. (Koadro hau "Naufragos" deitzen da baita).

1936an, barneko gudak Madril-en arrapatzen du, bera Pinturako eskola nagusian irakasle izanez, eta Valenciara mugitzen da gobernuarekin, nondik Mejikora abiatzen da pintatzen jarraituz, Miarriz-en egonaldi bat egin eta gero. Mejikon, tranbian ioiala, istripu batean eriotzak hartzamanen du, 1940an hots, hirurogetabat urte zituela.

BERE OBRAREN KONDAIRA GISA ETA EBOLUZIOA

Artetan sasoiari, estatu espainolean zer pintura egiten zen ikusteko, begira dezakegu, berak hamabi urte zituela, zehar izan zen "Bellas Artes-eko lenengo saria 1892an", "El derecho de asilo" izeneko koadroarekin, Ameriko-k irabazten du. Cutandak, bere aldean, "Una huelga de obreros", Artetak berak erabilitako "Debera erara", koadroarekin, hots, teknika akademiko batekin egiten ziren obra sozialak edo gai sozialekoak behintzat.

Pixka bat aurrerago, koadro akademiko utsak izan ziren irabazleak. Honela hauta detzakegu, 1878an, "Doña Juana la Loca", edo "Isabel la Católica cediendo sus joyas a Colón". Hauk ziren obra historikoak, teknika oso errealistaz eginikoak hotzak eta balore plastiko gabeak. Erakusketa honetarako, Banca de Bilbao-k egingako liburutzuan agertzen den Joaquin de la Fuente-k dioskua bezala, Frantzian, 1848tik aurrera, iraultzaren haizeak eta erromantizismoaren urratsak beren domeinua jarri zuten, plastika erroman, handik Espainiara ere heltzen zituzten batzuek.

Panorama plastiko horretan, egin zituen gure Artetak bere lehengo pauso artistikoak. Garai horretakoak dira, "La ciegucecita del acordeón", eta "Accidente de trabajo en una fábrica vizcaína", koadro azken honekin, Diputazioarekin batera irabazten, "ikasketak haunditzeke". Pintura hori guztiz akademikoa zen, eta te baterako, Belazquez-en teknika gaudena emulatzen, baina beste gai batzuek erabiltzen. Artetarengan, ardura soziala, esan dezakegu, ez zela modaren ondore bat, bere barruko sentimendua baizik, geroago ere eta bere ekintza artistikoan zehar, be-



ti gorde zuen pintzelada bat Bilboko lan-
gileria aipatzeko, benetako pintura sozia-
la egiten Ibarrolak esango duen bezala.
go duen bezala.

Europar haizeak, berriz ere beheko es-
tua estali zituen, "Impresionismo" zirki-
gunea zela eta Aureliano de Beruete, Re-
goyos, Sorolla eta Mir, izango ziren, esko-
la edo tendentzi horren gaillurrak. Beste
aldetik ere eta bertan sortutako pintaera
bezala Zuloaga eta Gutierrez Solana
aipatu behar dira errealdismo gogorra eta
berritzaile baten errepresentanteak.

1901ean, Iturrino eta Picasso-k beren
obra erakusten dute alkarrekin, Parisen.
Etxebarria, euskaldun empresalaria, ga-
rai horretan pintatzen hasten da ere, koin-
ziditzen 1902an, Artetaren heldzearekin,
Parisera bertara eta mundu artistiko ho-
rretan harremanatzen.

1906an, zeren eta Artetarengan in-
fluenzi handia izango zuen bere pintaera.
Cubismo, Picassoren eskutik argia ikus-
ten da 1907an gitxi gorabera, eta Vaz-
quez Diaz izanen da pintaera pertsonal
batez moldatzen duena, bere ikasgaia,
beste pintoreek jarrai dezatela.

1910 inguruan, European eta pintore ba-
tzuen eskuetatik ekarrita ere Estatu Es-
painolean, "Cubismoa" izango zen ain-
tzingoardia, berarekin batera, "Faubis-
moa" mantentzen eta hainbat pintore on-
diño, "Impresionisten" lekzioak ikasten.



Espaini ia aldean, "Cubismoa" arrakas-
ta handia izanen da, Picasso-k asmatutako
ikerketak plastiko hortaz kontu asko atara
baiziren. Juan Gris, Maria Blanchard,
Vazquez Diaz eta Cossio, honela izan zi-
ren kubismotik atara zituazten lekzio plas-
tikoak eta euren pintaerari atxiki zizkio-
tenok baliobide merezigarriak.

Arteta bere aldetik errealdismo tipiko
batetik, apurka apurka, bere paleta sako-
tzen ari da, "Faubisten" ikasgaia ikasirik,
margozko indar berri batez estaltzen
bere lanak, margoen oposizioz eginik as-
kotan.

Oso ikusgarria zaigu adibidez. "De es-
pera en la romería", "Camino al merca-
do" "Sardinera sentada" eta garai horre-
tako koadro batzutan, nahiz eta marraz-
kia oso landua egon, margoa izaten da be-
re osagai funtsezkoena, pintzelada finaz
eginikakoak, baina margo oldartsuz.

Oso "faude" agertzen zaigu, Arteta,
1920a arte, jadanik bere koadroak, hor-
maren beharra erakusten. Koadro batzu
aparte, "Despedida de las lanchas" adibi-
dez, gehienek, neurritz eta pintaeraz,
muralismoari deitzen diote, indarfobistaz
eginiako muraletara. Bere obrak eska-
tzen ziola eta Bastida arkitektoak Madri-
len egindako "Banco de Bilbao" banke-
txerako muralak eskatzen dizkio egitea,
1923an amaitzen gure pintoreak, "fres-
koz" egindako muralak, Espainialde osoan
paregabekoak, eta European zehar ere eta
aro horretan merezimendu handienetari-
ko bat beharrekoak.

Kapitulu berezi bat mereziko lukete
mural horiek, baina esango dugu bakarrik
Artetak berak muralak egitea asko mai-
tatzen zituela. "Kaballeteko" pintura bai-
no gehiago eta izugarriko indarra dutela-
ko muralek, margo oldartsuz eginak, ma-
rrazkia erliebedunak eta beharbada gaiak
edo sinbologia, —lana, lan intelektuala,
uzta eta abar,— pizkat atzerakoa irudi-
tzen zaigula, baieztatzen dena dela erre-
presentatzen dituzten koadro laboralak
eta herrikoiak, gaur egun ondiño xoratzen
gaituela, bere indar plastikoz eta barruko
egitura sakonaz.

Garai horretan hasten zaio Artetari,
"cubismoaren" eragipena, bere marrazkia,
hertzaduna agertzen eta Bazquez Diaz-en
erara, ez Picassorengan edo Juan Gris-en-
gan bezala agererrazten, margoen eta for-
men distribuziorako tankera formalista
bezala, konposaketa honela laguntzen eta
gainera indar expresibo handia ematen.

Arteta-k, Vazquez Diaz-en eskutik on-
hartzten du "kubismoa" eta bere perso-
nalezko ikuspegitik, pintaera argitsu eta
liriko batera heltzen da, "Camino del
mercado", "Pescadores", "Mujeres en el
monte", "Txo y sardinera", oso ospetsua
den koadroa, "De chachara", "Lavande-
ras" koadroetan, eguneroko gauzak atera-
tzen dizkigute, eskena arruntak eta herri-
koiak, baina lirismo formal batez trata-
tuak. Argia eta margoa, koadro horretan



marrazkiaren laguntzaileak dira, heldutanun plastikoa erakusten.

1930ean, eta pintaera honen jarraieraz, bere koadro "Bañistas"-k 1930ko "Premio nacional de pintura" irabazi zuen. Konposaketa honekin, bere heldutasun artistikoari gailurra ematen dio. Koadro honen baino lehen erabiliak zituen gaietan erakusten zuen, Artetak, berak zuen goxotasuna eta fintasuna. "Bañistas" koadroan beste alde bat agertzen zaigu: sensualidadea, ia erotismoa. Emakume talde horretan, eta gaia, zein den kontura artu gabe ordea, ikus dezakegu egitura plastiko tuntsezko bat eta formek eta margoek egiten duten joko piktorikoan, balore abstrakto izugarriak, koadroa, plastizidade hutsa duen zer bat iduritzen baizaitu. Margoa ere nahiz eta indarra ez galdu, leuna, urguria, izaten.

Bere pintaerak beste eboluzioa jasanen zuen aro honetatik aurrera. Marrazkia ez da agian aldatzen, baina gaiak monumentalgokoak bihurtzen dira. Pertsonai indartsuak agertzen zaizkigu, lengo aroan bezala, baina margoaren tratamenduz itzelezkokoak, erraldoiak iduritzen zaizkigu. Margoa sakonagoa bihurtzen da teknika landuago batez pintatzen baizuen.


Beste behin ere koadroak, muralentzako asmatuak dirudite, gaiak ere euskal bizitza arruntetik atarata ditugu, baina beste indarra lortzen du, margoari bizitza berria ematen, itzalak eta argiak erabiltzen joko plastikoaren gidari bezala.

Bilboko museoa dagoen. "Arrantzales" koadroan, "El frente", "Evacuación por mar", eta "Retaguardia"-ri deritzo triptikoan ikus dezakegu, bortxa berri hau.

Margoaren bortxadura, margoen aberastasun berria eta gero eta gehiago, iluntasun ikaragarria. "Laiadores vascos" eta "Puente de Burceña" koadroetatik, "El acordeonista" edo aipatu dugun triptikoari, iluntasun hori hedatzen ari da tragikotasun batez estaltzen gure begiak, Artetak eginikako izakiekin. Gudaren expe-

rientzia, izan omen zen aldaketa honen agintari.

Bere azkenaldiko koadroak, gogortasun tragikoz beterik iduritzen zaizkigu. Expresionismo indartsua daramate, non iger letzake, gizonaren patu petralaren aurpegia, gerlaren hondamena, herri baten pairamena eta gizabakarraren beldurra. Koadro hauk, 1930tik gerla denbora artean eginak, uste dugu guk, "expresionismo" mota baten ordezkariak direla, Europan zehar egin zuten "Expresionistek" garaikidea eta hots, Europako aintzingoardiaren urbil, ez ba ditugu kontutan hartzen "Dada" eta "surrealismoa", 1924tik aurrera. Adibide argia, "naufragos" margozkian dugu, zeinekin, 1932an, "Primera medalla de la exposición de bellas artes" irabasi zuen.



ARTETA ETA SOZIAL ZERA OHARRA

Artetaren pinturaren gaia, euskal herriko gizona izan da beti. Paisai batzu egin zituen baita baina bere obraren funtsa, giza taldeak dira eta beti ere, bizpairu margozi kenduz, euskal gizonaren lana.

Nekazariak eta langileak dira gehienetan ehunen azalak estaltzen dituztenak. Beti izan zuen giza eta sozial ardura.

Bere mundua, lanena da. Erromeriak azaltzen dira baita ere, beharraren beste alde balitz.

Dakigun bezala, gizon ezkertiarra zen, Prieto-ren laguna ere izaten.

Horregatik, langileak, baserritarrak eta arrantzaleak dira, bere obra estaltzen dutenok, ideologian eta sentikortasunean, beti horien hurbil baizebilen. Baina pixka bat adierazteko bere pinturaren alde hau esan beharko da, mail horretan bere pintura "errealista" dela, bere denborako



gizartea eta lanak azaltzen, iri industrialen paisai hertsietan erakusten lantzaileen inguruneen tristura.

Ene ustez, esan dezakegu, pintura soziala egin zuela, sozial arazoak, bizimoduak eta lanaren gogortasuna erakutsi zizkigulako. Baina ez nago horregatik ados, Ibarrola pintorearen esaera horietan: "El mundo proletario, esta diciendo la historia que le cercaba aquí y universalmente, y el (Arteta), lo convierte en el más importante motivador de su expresión plástica. En el testimonio de las modernas versiones de los desastres de la guerra, Arteta, incluye el sentido de las nuevas fuerzas de la historia".

Ene iritziz, Artetak ez du ematen koadro sozialei edo lan-koadroei norabide bat, Ibarrola-k dion bezala. Bere errealismoa, hutsagoa da eta erakuskorra, eta beharbada mitikoagoa. Adibidez, "El puente de Burceña" koadroan, industrializapenak sortzen dituen hiri eta auzunen tristura eta desesperantza erakusten dizkigu, iraultzaren beharra edo etorreraren orde.

Langileen taldeko koadroetan ere, agertzen zaiguna, lanaren nekapena da, egia, baina zer epikoa, indartsua eta naturaren bilakaketa ere gizonaren lanaz, zer, beste sentitua ematen die, koadroei, hustiraketa kapitalista hondoan etzan susmatzen, planfletada sozialista egin gabe.

Arteta gizonari zaio hurbil, "errealismo sozialistari" baino geniago, eta iraultza moeta batzuei baino geniago.

Jon Sendagorta

SABINO ARANA FUNDAZIOA

BI EDERLAN HAUEKIN JASOKO DUGU SABINO ARANA FUNDAZIOA

Euzkadik hain garrantziko duen kulturlan hau burura eramateko, den-denok elkarren lankide izan behar dugu.

Gure laguntza errazteko, Jorge Oteiza eta Nestor Basterretxea bi euskotar unibertsalek sortu egin dituzte estetikazko zentzu sakoneko honako bi eskultura hauk.

Bi artelan hauk errefraktariozko eta brontzekoak dira eta jendeak hurrengo salneurrietan lor ditzake:

Errefraktariozko bi eskulturak: 10.000 pzta.

Brontzeko bi eskulturak: 40.000 pzta.

Hau bai parada, etxean holako artelana edukitzekoa. Bestalde, Euzkadiren kultur birsorpenerako lankidetzaz modukoa da, denon artean **Sabino Arana Fundazioa** jasoz; gure Herriak behar eta galdatzen duen kulturana berau.


**Sabino Arana
fundazioaren aldeko
Batzordea**

Informaziorako eta salmentarako:

Bilbon	Tfno. 4 23 80 02
Donostia	Tfno. 21 30 36
Gazteiz	Tfno. 26 37 77
Iruñea	Tfno. 21 19 22

OHARRA: Eskulturok errax errax lortu ahal izateko, Batzorde honek Banku eta Aurrezki Kutxekin itundu du, epeka ordaintzeko ohizko bezeroei kreditu ematea.

PLANETEI BEGIRA



PIONEER 11

Astronomiak prentsa txarra eduki du Natur Zientzien artean. Harritu ere egiten gara, Zientziazat kontsideratzen denean. Baina Fisikak bere aurrerakuntzarako zerbaitetan oinarritu izan bada, Astronomian izan da. Greziarrek eta Ekialde Hurbileko zibilizazioek Fisika-Matematika oso bat proposatu zuten, zeruan ikusten ziren higidurak azaltzeko. Erdi Haro hurbilean eta Errenaisantzian, Astronomiak "Haro Ilunak" argitu zituen. Gero, Newton-en irudi erraldoiaren bidez, Naturaren batasun mekanikoa frogatzen da. Gure mende honetan, Einstein-en teoriaren lehen frogalekua datu astronomikoak ziren. Ez da harritzekoa, beraz, zientifikoek datu gehiagoren bila Lurretik at ibiltzea.

Orain dela urte batzu, bai amerikarrak beren satelitekin, bai sobietarrak beren sputnik-ekin, Unibertsoa arakatzeko saiatu ziren, Unibertsoan problema askoren erantzuna aurkitzeko asmoz, eta problema berriak planteatzeko datuak lortzeko. Politika zientifiko hori gaur pixka bat baztertuta dago; orain Lurrean bertan sentitzen diren fenomenoak aztertzen saiatzen dira zientifikoak (neutrinoak, mikrouhinak, eta beste erradiazio elektromagnetikoak,...). Baina orduko zientifikoek ikusmirak luzerakoak ziren, eta proiektu batzu orain hasi dira fruitu ematen. Proiektu bat Pioneer 11 izan da.

1973.eko Apirilaren 5ean (denbora luze pasatu da: Allende, Nixon, Carro-Franco, boterean zeuden), Cape Kennedy-tik, Floridan, Atlas-Zentauro roketatik batek bultzatuta, hiru metro zabalera-

ko laborategi automatiko bat eguzkitan temaren atal bat hurbilgotik estu bidali zen. Teleskopioz ikustezin den propietate batzu ikustea zuen helburua Jupiter, eta, batez ere, Saturnori hurbil itaun batzuren erantzunaren 100.000 kilometro orduko abiadura "ia" berehala atzean uzten du Marte zazpi hilabetetan Asteroideen esku zeharkatzen du. Hau da bidaiaren arriskutsuena. Edozein harririk progoguztia pikutara bidal dezake. Zere ez da ezer pasatzen. Arazo tekniko b ere ba daude: potentzi sortzaile plutoniozko zelulak -eguzkitiko radi ez da nahiko, instrumentuak marrazko: 108 watt-, ez dira ongi ibiltzen. nale-emisore bat (bi daude) aberiar ten da, ordezkoa ondo dabilelarik. ki-ekaitz elektriko eta magnetik -eguzki-haizea- ez dute seinalea tzen uzten. Ez da erraza, ez, sei urte bidaia hau.

ERRESULTATUAK

Jupiter inguratzerakoan (1974.eko abenduan), Pioneer-ek zera erakusten duen energia baino doblea emititzen duela. Bere gainazalean gertatzen diren ekaitz ugariekin eta "bikor gorri handia" delakoarekin, Jupiter inplosio grabitazioal bat pairatzen ari dela ematen du.

Saturno, bere hilargi-sistemarekin, misterio-bilduma bat izan da. Galileok aurkitutako eraztunak, planetaren hodeiak, Titan hilargia... imaginazioaren desafioak dira. Saturnoren inguruan igarotzean, eguzki-haizeak eta Saturnoren eremu magnetikoak Pioneer erdian harrapatu zuten. Saturnoren eremu magnetikoaren existentzia frogatuz eta magnitudea neurteko posibilitatea emanez.

Fotoak bidaltzerakoan (railaren lean) eraztunak banda ilun eta argiak bezala ikusten dira. Halaber, planetak hamar banda kolorezko erakusten ditu ipar hemisferioan. Bandetan dauden bikorren higidurak aztertuz, planetaren errotazioabiadura desberdinak neurtu ahal izango dira (planeta gasezkoa denez, planetaren atal desberdinak abiadura desberdinez errotatzen dute). Mundu huts eta deseroso bat dela ematen du, hidrogenoz eta helioz konposatua nagusiki, eta amoniako eta metano solidozko arroka batzu

daudelarik. Eraztunei buruz, fotoak aztertzen ari dira zientifikoak, konposizioak—fotografia infragorri eta ultramozez determinatuta—asko lagunduko dielarik.

Eraztunak, bestalde, ez dira Saturnoko monopolio. Jupiterrek (1) eta Uranok (9) beraien eraztun-sistema era ba dutela ikusi izan da, inkognita gehiago emanez, eraztunaren fenomeno fisikoari azalpen orokorrago bat bultzatuz.

Saturnoren inguruan dauden hilargietatik, Titan da karakteristika berezienak dituena. Eguzkiaren beroa manteni dezakeen atmosfera baten jabe da, eta azterketa espektroskopikoak direla eta, polimeroen existentzia susmatzen da. Horela bada, aminoazidoak eta proteinak ere egon daitezke, bizitza bat posibilitatuz. Hala ere, hilargi horren tenperatura (-150oC) ez da bizitza guk ulertzen dugun bezala sustentatzeko egokiena. Baina duela ehun milioi bat urte Lurrean egondako atmosferaren kidea dela ematen du, eguzki-sistemaren garapenaren giltza izan daitekeelarik.

Pioneer-ek bidaltzen dituen seinaleak (1024 datu segunduko), tenperatura, eremu magnetikoen intentsitateak, polaritateak, eta beste informazio asko ematen dute. Fotoak ere, erradiazio elektromagnetikoen gisan, Lurrera heltzen zaizkigu, espazioan 86 minutu pasatu ondoren. Lurrean, komunikazio-tresneria ultrasofistikatua behar da. Lurretik seinaleak bi-


daltzen dira satelitera, han dauden instrumentuak martxan jartzeko, eta satelitea posizio egokienera orientatzen duten motoreak pizteko. Bidaiak plasma-analizatzaile batek emitituriko datuek, eguzki-sistemaren mapa elektromagnetikoak egiteko balioko dute... Sei urtetan pilaturiko informazioa materiale handia da.

ETA GERO?

1980.ean eta 1981.ean Voyager 1 eta 2 Saturno ingurutik pasatuko dira. 1986.ean Voyager 2a Urano ondodtik pasatuko da. Neptuno eta Pluto behatzeko ez dago ideiarik, epe labur batetara behintzat. Bai amerikarrek eta bai sobietarrek inbestigazio hau aurreratzeko dirua moztu dute, projektu hurbilago batzuren truke. Baina azterketa espazial guztian Estatu Batuek gastatu dutena, Vietnam-en urte batetan gastatu zena baino gutxiago dela pentsatzen denean, ez da alaitasun zientifikorik sentitzen.

Eta Pioneer-a? Titan ondodtik pasatu ondoren, espazioan galduko da. Norbaitek aurkitzen badu, urrezko xafla bat aurkituko du, eguzki-sistemaren posizioa-pultsaren bidez emanda gizon emakumeren irudiak eta hidrogeno-molekula bat bertan irudikaturik. Noiz? Non? Hori fantasia da.

I. Zuazo



FISIKA, HIZTEGIA:

AURRERANZKO PAUSO GOTORRA

FISIKA

HIZTEGIA

UZEI

Abenduaren 27an, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egun berean, Fisikari buruz UZEIk prestatu duen hiztegiaren aurkezpena egin zen. Dena joan zen ondo; pena bakarra Iparraldeko hiriburuaren batetan ere ez egitea. Ea hurrengoan hobeto asmatzen duzuen!

Ez dakitenentzat, UZEI (Unibertsitate Zerbitzuatarako Euskal Ikastetxea) hiztegi espezializatu asko prestatzen ari dela esango dugu eta beronen ondotik beste hamabost bat edo etorriko direla: Politika, Kimika, Matematika, Ekonomia, Medikuntza, Linguistika,...

Bestalde Euskaltzaindiak begi onez ikusten du egiten ari den lana, aipaturiko hiztegiaren esaten den bezala: "Euskaltzaindiak pozik ikusten du hiztegi berezitu hau, eta, Fisika alorra euskalduntzeko baliozko tresna dela uste izanik, alor horretaz arduratuei eskaintzen die".

C

C
→Coulomb unitatearen laburdura.

°C
Celsius →graduaren laburdura (Ik. ESKALA TERMOMETRIKOAK).

Cal
Kalaria izeneko bero-unitatea adierazteko erabiltzen den laburdura.

CARNOT, Nicolas Léonard Sadi

Injinadore militar frantses hau 1796. urtean jaio zen. →Mekanikaz arduratu zen bereziki, eta 1824. urtean lan bat argitaratu zuen: "Réflexions sur la puissance motrice du feu et sur les machines propres à développer cette puissance". Bertan bi temperatura desberdinetako bero-iturriren arteko zikloan lor daitekeen →errendimendu maximoa aztertzen da, eta horren ondorioz Carnot-en →zikloa izeneko ziklo termodinamikoa adierazten.

Lan hau →Termodinamikaren oinarri bat dela esan daiteke. 1832. urtean hil zen.

Carnoten zikloa


ciclo de Carnot / Cycle de Carnot / Carnot cycle

Carnot-en zikloa →ziklo itzulgarri bat da. Beraren grafikoa bi kurba →isotermikoz eta bi kurba →adiabatikoz osaturik dago (Ik. irudia).

AB partean expansio isoterma gertatzen da T₁ →temperatura absolutuan, eta bertan →fluidoak →beroa hartzen du iturri berotik eta lana ematen du. BC partean expansio adiabatikoa gertatzen da, →lana emanez eta beroaldaketarik gabe. CD partean konprimaketa isotermikoa gertatzen da lana hartuz eta beroa emanez (iturri hotzean, T₂). Eta DA partean, azkenik, konprimaketa adiabatikoa dago eta beroaldaketarik gabe lana hartzen du. Carnot-en zikloa bi temperaturren artean makina termiko batez lor daitekeen →errendimendurik gorena duen zikloa da. Konkretuki, hauxe:

$$\eta_{\max} = 1 - \frac{T_2}{T_1}$$

Cavendish-en balantza



14. Ird. Carnot-en zikloa.

CAVENDISH, Henry

Aristokrata ingeles hau 1731. urtean jaio zen. Oso aberatsa zen, eta bere bizitza guztian Kimikaz arduratu zen. Bere buruz zera esan izan da: Jakintsu guztien arteko aberatsena eta aberats guztien arteko jakintsuena zela. Hidrogeno deitzen dugun gasa berak aurkitu zuen lehenengoz. Gizon guztiz berezia zen. Ez zuen idealik, ez sentimendurik, eta ez maitsunik. Emakumeen etsai purrukatua zen. Bere bizitza guztia kronometratua zegoen eta eguneroko egitaraua ez zuen ezergatik ere aldatzen. Fisikaren arloan, →grabitazio-indarra eta →grabitazio-konstantea neurtzeko torsio-balantza bat prestatu zuen, gaur egun Cavendish-en →balantza izenez ezaguna. 1810. urtean hil zen.

Cavendish-en balantza

balanza de Cavendish / balance de Cavendish / Cavendish's balance

→Grabitazio-konstantearen (G) balioa neurtzeko →Cavendish-ek erabili zuen tresna. Honek barra horizontal baten muturretan m masako bi platino edo urre-esfera ditu; barra hau bere erditik hari fin batetatik zintzilik dago. Hari honi helduta, ispilu txiki bat dago, eta honek argi-izpi bat isladatzen du eskala batetara. Balantza erabiltzeko, m masako bi esferen ondoan M masako berunezko bi esfera handi ipintzen ditugu. Grabitazio-indarren eraginez, →indar-bikote bat sortzen da, haria bira erazten duena (eta ispilua honekin batera). Beraz, ispi-

Hiztegiaren iturburuak eta lankideak

Iturburuaren artean ezin utzi daiteke aipatu gabe, duela hiru urte Jakin taldeak Arantzadi taldearekin batera ateratako Natur Zientziak liburua. Modu berean, hiztegi honetako hitzak eta egiturak aldeztu erabiltzeko erabiliak eta frogatuak izan dira, Elhuyar aldizkarian eta Udako Euskal Unibertsitatean argitaratu izan diren liburuetan. Eta lantaldeak aipatzekotan, hiztegiaren egituraketa eduki duten eraginagatik, gutxienez ondoko hauk aipatu behar dira, liburuaren sarreran bertan aipatzen den legez: Elhuyar, Jakin, Leioako Zientzi Fakultateko Euskal Taldea eta UZEI bera. Sarreraren esaten denez, "Euskal Herriaren erakundetze eta normaltzerako bidean, etorkizuneko Euskal Unibertsitateari eta irakaskuntza euskaldunari buruz hauek egiten ari diren oinarri-lana norainoko garrantzizkoa den, ez dut uste oraindik konturatu ere egin garenik. Sasoz konturatu ahal gara eta indartuko ahal ditugu!".

Iturburuak agertu ondoren, aipa ditzagun konkretuki lankide bezala parte hartu dutenak. Hamahiru izan dira detara: Imanol Añon, Luis Mari Bandres, J.M. Bujanda, Maria Jesus Erkizia, J.R. Etxebarria, Xanti Intxausti, Jazinto Iturbe, Xabier Larrea, Andoni Sagarna, Jon Sukia, Imanol Tapia, Kepa Zalbide eta Mikel Zalbide. Irudigilea, Endika de Miguel

de Anjou izan da. Hizkuntz arduradunak, J.R. Etxebarria eta Mikel Zalbide. Eta zuzendaria, J.R. Etxebarria. Noski, prozesu osoan baliaturiko azpiegitura UZEIrena izan da.

Liburuaren egitura

Liburu mardul honek lau atal nagusi ditu:

- * Lehen atalean, liburuaren aurkezpen eta azalpenaz gain, sarrera luzengatik dator, hitzaurre modura egina, bertan hiztegiaren historia, maila, oinarriak helburuak, lan-metodoa eta ezaugarri nagusiak azaltzen direlarik.
- * Bigarren atala (liburuaren "lehen atala" izenarekin) gaiak -Fisikazko gaiak hulegiak- lantzerantz zuzendurik dago. Nolabait esateko hiztegiaren gorputza osotzen dute gai hauek. Hemen, euskaraz, Fisikazko kontzeptu nagusiak azaltzen dira.
- * Hirugarren atalean lexikoa dugu. Lau hizkuntza hartuz, 4000 hitz ematen dira, guztiak Fisikaren arloan bereziki erabiltzeko. Lehen zerrendan hitzak euskararen arauera daude ordenaturik, alboan gaztelania, frantses eta ingelesezko itzulpena datorrela. Beste zerrendak honako hauek dira: gaztelania-euskara, frantses-euskara, ingeles-euskara.
- * Laugarren atalean taulak datoz. Denerata 30 taula, Fisikazko unitate, oinarriko konstante, sinbolo eta abarrik.

Eritzi orokorra

Lehen unetik, UZEIko talde horrek lan izugarria egin duela ikusten da. Gu, behintzat, harriturik utzi gaitu.

Erraz irakurtzen da eta horixe da, ene ustez, duen baliorik handiena. Hizkuntza guztiz berezitu edo espezializatua izan arren, nahiko ezagun gertatzen zaigu. Aurkezpenean zuzendaria berak esan zigunez, jadanik praktikan erabilia izan da azken urteotan, eta hori igarri egiten da laster irakurtzen hastean, ez baita latz gertatzen: Ertzak eta erpinak biribildurik, gastaturik daudela dirudi, erabiliaren erabiliaz edo.

Tipografia eta aurkezpenaren aldetik, letra argi eta atseginez egina dago. Behar bada, irudi batzuren tamaina ez dago ongi kalkulaturik muntaia egiterako orduan, eta horrela, irudi batzu behar baino handiago eta beste behar baino txikiago dira.

Koadernazioa eskasa dela esango nuke. Ene ustez, azal lodiak merezi zituen, liburu hau asko gastatzeko eta erabiltzeko egina izan baita.

Azken oharrak

Liburuaren sarrerak dioenez: "Ezina Ekinez Egina". Eta liburua hor dago.

Fisika euskaraz? Batzuren eritziz, hori utopia hutsa zen. Ez omen zegoen hitz egokirik. Ez omen zegoen egitura egokirik. Ez omen.

Orain hitzak hor daude. Egiturak hor daude. Orain praktikatu beharra dugu. Praktika baino ez zaigu falta.

Ba dakit hainbeste pertsona ari direla lanean: UEUn, Elhuyarren, Leioako Zientzi Fakultatean, Lizeoetan, Ikastoletan, Eskola Profesionaletan, ... Baina oraindik gutxi gara. Horregatik ez nuke artikulu hau bukatu nahi, irakasle eta ikasle euskaldunei dei zabala zuzendu gabe. Guztiok, lehenik eta behin alfabetatu beharra dugu. Eta bigarren pausoa, alfabetatze teknika dugu. Zein bere arloan. Beraz, Unibertsitate, Institutu, Eskola Profesional, Ikastetxe eta Ikastoletan zaudeten -gauden irakasle eta ikasle guztiok alfabetatze zaitetze -gaitzen-. Eta bai Fisikan ere.

Txepetxa

eite

Euskara	Español Gaztelania	Français Frantsesa	English Ingelesa
egoera termiko	estado térmico	état thermique	thermal state
egoera-aldaketa	cambio de estado	changement d'état	change of state
egoera-aldaketako temperatura	temperatura de cambio de estado	température de changement d'état	state changing temperature
egoera-diagrama	diagrama de estado	diagramme d'état	diagram of state
egoera-ekuazioak	ecuaciones de estado	équations d'état	equations of state
egonkor	estable	stable	stable
egonkortasun termiko	estabilidad térmica	stabilité thermique	thermal stability
egonkortu	estabilizar	stabiliser	stabilize
egurats	atmósfera	atmosphère	atmosphere
egurats-	atmosférico	atmosphérique	atmospheric
egurats-errefrakzio	refracción atmosférica	réfraction atmosphérique	atmospheric refraction
egurats-leihoak	ventanas atmosféricas	fenêtres atmosphériques	atmospheric windows
egurats-presio	presión atmosférica	pression atmosphérique	atmospheric pressure
egurats-presio lokal	presión atmosférica local	pression atmosphérique locale	local atmospheric pressure
egurats-presio normal	presión atmosférica normal	pression atmosphérique normale	normal atmospheric pressure
eguzki-	sol	soleil	sun
eguzki-	solar	solaire	solar
eguzki-egun	día solar	jour solaire	solar day

ZENBAIT OHAR SOLTE

Oraingo artikulu honetan ez dut gai bakar-
karra aztertuko. Nolabait esateko, aspal-
ditik zenbait ohar labur egiteko asmoa
bainuen, beren artean inolako loturarik
ez duten gai batzu azalduko ditut, porru-
saldak antzeko bat prestatuz. Hori musi-
kan zilegi bada, zergatik ez gramatika-
sail honetan?

1. Aipamen berezia

Aurreko artikuluan gai zenbakigarriak
eta zenbakiezinak azaldu nituen. Lagun
batek esan didanez, aipatu beharra nuen
Altube, zeren eta beronek "Erderismos"
liburuan aspaldi agertu baitzuen proble-
ma hori. Eta, noski, gustura aipatzen dut,
bide batez, artikulu hauk prestatzeko
gehien erabiltzen dudana liburuetako bat
horixe dela aitortuz.

Dena den Altubek ez du zehazki modu
berean azaltzen. Berak dioenez: "Los vo-
cablos que se refieren a seres no ponde-
rables o a objetos cuya cuantía no se
acostumbra a determinar por cifras nu-
méricas concuerdan mal en euskera con
el adverbio asko empleado en sustitución
de aundiya o luzea" (Erderismos 197).
Ondoren adibide asko dakartza:

**Kee aundiya
gogo aundiya
denbora luzea
argi txikia, argi txatxarra**

Modu berean, zenbait kasutan posibili-
tate biak erabil daitezkeela, esaten du
baina noski, esangura desberdinez

**su handia = su asko
argi handia = argi asko**

Ikusten denez, pasa den egunean eman-
dako azalpenarekin guztiz ados dator,
hango kasu guztiak agertzen ez baditu
ere.

2. Pertsona-izenen ortografia

Gauza ezaguna da, jadanik euskal ize-
nak erabil daitezkeela. Egia esan, deitu-
rak idazkera erdaldunez idaztera
bahartzen gaituzte; baina, tira!, ez diegu
kasu handirik egiten...

Edoertara ere, euskal izenak idaztean,

noizean behin gauza ikusten dira. Ni
gehien harritzen nautenetariko bat, zen-
bait izenetan jartzen den Y letra da: **Yon,**
Yosu, Yoseba. Hain urrun joan gabe, bes-
te batzuk **Ion, Iosu** eta **Ioseba** idazten du-
te. Eta bukatzeko, Euskal Izendigian age-
ri den forma dugu: **Jon, Josu, Joseba.** Hain
gauza erraza, eta hiru ebazpide desber-
din! Harrigarria benetan!

Ni ez naiz orain hasiko izenok ongi edo
gaizki sortuak direnentz eztabaidatzera.
Izenok hor daude, jendeak eurrez erabilt-
zen ditu eta guztiz gureak direla esan de-
zakegu. Baina ez ote da posible forma ba-
kar batetara erabiltzea?

Euskaltzaindiak euskal izendegi ofiziala
prestatu zuen aspaldi, J.M. Satrustegi

semantikoa euskarara sartuz doa, ia kon-
turatu gabe. Euskara mintzatuan balen
ere, baina bai euskara idatzian ere.

Erdaraz, **bueno, a / malo, a** bikotearekin
adierazten dira ontasun/gaiztasun kont-
zeptuak. Euskaraz, ordea, ontasuna
adierazteko bide bakarra dagoen arren
(**on**) aurkako kontzeptuaren adierazpene-
an, bikoiztasuna agertzen zaigu. Mate-
riale baten nolakotasuna adierazi nahi
denean, **txar** hitza erabiltzen da, eta
pertsona edo egintza baten gaiztasun mo-
rala adierazi nahi denean, **gaizto** erabilt-
zen da (**oker** eta **tzar**, direlakoak, maile
desberdinekoak dira).

Koadro batetan, honela azal dezakegu
arazoa:

kasu guztietan	ardo ona eguraldi ona bide ona	ardo txarra eguraldi txarra bide txarra	nolakotasun hutsa
	emakume ona gizon ona txakur ona	emakume gaiztoa gizon gaiztoa txakur gaiztoa	eritzi moralia

euskaltzainaren zuzendaritzapean; eta
bertan argi adierazten da nola idatz: **Jon,**
Joana, Josune, Joseba, Jurgi, Josu, Julene,
Jokin... Ez legoke gaizki, ba, izendegi
horren arauari kasu egitea. Eta ohar hau,
batez ere, aldizkarietan ari direnei zu-
zentzen diet.

3. Ona batetik, txarra/gaiztoa bestetik


Kasu honetan ere, erdararen banaketa

Beraz, hau kontutan hartzekoa da gaur
gehiegitan entzuten baitira "une txarra"
arakoak. Zer esanik ez, ba dakigu, bai
ontasunean eta bai gaiztasunean maile
daudela: **ona, hobea, ederra, bikaina...**
alde batetik, eta **oker, tzar, donge, ...** bes-
tetik.

Dena den, argi eduki behar dena, bi ere-
muen banaketa da.

J.R. Etxebarria

HERRI BATASUNA



- Nafarroarekin
- Autodeterminazio eskubidearekin
- Euskararekin
- Alderdi independentisten eskubide demokratikoekin
- Egiazko autonomia eta demokraziarekin
- Preso eta exiliaturik gabe
- Franco-ren poliziarik gabe
- Lemoizko zentralik gabe
- Torturarik, bortxaketarik eta inkontrolaturik gabe, lotsa guzti hoiek gabe

holako Euskadi bat Euskal Herriaren parte garrantzitsuak nahi duela adierazteko.

HERRI BATASUNARI BOTUA EMAN

EGEO ITSASOKO POETA AURTENGO NOBELA

Odysseus Elytis 1911.ean sortu zen Kreta uharteko Heraklion herrian, bere benetako izena Odysseus Elepoudelphis delarik. Egun Atenasen bizi da. Poeta surrealistatzat dute kritikoeak, erro oso grekodun surrealistatzat alegia, eta nobel saria jaso duen bigarren poeta grekoa da, zeren eta Georges Sopheris-ek hartu baitzuen 1063.ean.

Andreas Embirikos poeta surrealista grekoaren eraginez hasi zen idazten. Gero, 1948 eta 1952. artean Parisen bizi izan zen André Bretón eta Paul Eluard surrealisten lagun. Artekritika egin izan du ur-

teetan zehar, eta Matisse eta Picassoren laguntza izan du bere zenbait obra ilustratzeko.

Odysseus Elytis poetaren garai berberakoak dira Greziar poemagintzan Yannis Ritsos, Nikiphoros Vrettakos, Aris Dikteos, Zoi Kareli eta Minas Dimakis esate baterako. Agian, Odysseus Elytis-ek baino merezitzenago zuen nobel saria Yannis Ritsos-ek eta esan da honen militanzia ezkertiaragatik ez diotela eman. Hala ere, poesia grekoaren heldutasuna erakusteko Vassilis Vassilikos "Z" delako nobelaren egileak Greziako panorama

literarioari buruz dioena itzuli dugu: "Hizlaua, izugarri txarra. Teatroa, ez dago existitzen. Musika, herritarra bakarrik. Poesia, ostera, miresgarria".

Edozelan ere, beraz, interesgarriak dira Odysseus Elytis poeta honen obrak gehienak frantsesera itzuli gabe, aragoi tiago gaztelaniara eta zer esanik ez euskarara. Itzuliko denean dastatu ahal izango dugu, nobel sariaren kobentzionalismoa bertatik at, Egeo itsasoko urdinaren eta baratasunaren oihartzun den Odysseus Elytis

DEL EGEO


*El amor
El archipiélago
Y la proa de su espuma
Y las gaviotas de sus sueños
En su más alto mástil el marinero agita
Una canción*

*El amor
Su canción
Y los horizontes de su viaje
Y el eco de su nostalgia
En su roca más húmeda la novia aguarda
Un barco*

*El amor
Su barco
Y el descuido de sus etesios
Y el foque de su esperanza
En su más suave ondulación una isla mece
La llegada*

LACONICO

*El dolor de la muerte me incenció tanto que mi brillo regresó al sol
Aquel que ahora me envía dentro de la total conjunción de la piedra y el aire,
Bien, éste que buscaba, soy.
Oh hilado verano, juicioso otoño,
Mínimo invierno,
La vida ofrece el óbolo de la hoja del olivo
Y en la noche dentro de los inconscientes con un pequeño grillo reafirma la le-
galidad de lo inesperado.*



VARIACIONES SOBRE UN RAYO DE SOL

IV
El anaranjado

*Tanto lo embriagó el jugo del sol
Qué inclinó su cabeza y aceptó ser
Lentamente el pequeño Anaranjado!*

*Así mientras blanco brillaban los siete cielos
Así mientras tocaban un fuego los cristales
Así mientras relumbraban colas de golondrinas
Se asombraban arriba los ángeles y abajo las doncellas
Se asombraban arriba las cigüeñas y abajo los pavos reales
Y todos juntos se reunieron y todos juntos lo vieron
Y todos juntos le gritaron: Anaranjado!*

*Se emborracha la vid y el escorpión, se emborracha todo el mundo
Más la picado del día no abandona el dolor
Le dice el martín pescador enano dentro de los gusanitos
Le dice el golpe del agua dentro de los momentos dorados
Le dice la frescura en el labio superior del buen viento norte!*

*Levántate pequeño pequeño pequeño Anaranjado!
Como te conoce el beso nadie te conoce
Ni te conoce el sonriente Dios
Que con su mano abierta en la reflexión solar
Te muestra desnuda a sus treinta y dos vientos!*

TIEMPO SERENO

II

*Cielo de pura sangre
Dedos que llevó corriente
Pasado por el sueño.*

*En los tiernos laureles
Desnudo yace el día*

“Cuadernos Hispanoamericanos”
Enero, 1970.

LIBURU BERRIAK

George Grosz
**El rostro de la clase dominante
 &
 ¡Ajustaremos cuentas!**

Colección Punto y Línea

**EL ROSTRO DE LA CLASE
 DOMINANTE & ! AJUSTAREMOS
 CUENTAS !**

GEORGE GROSZ
Gustavo Gili argitaletxe.
 "Punto y línea" bilduma.

Grosz, Berlinen jaio zen 1893.ean, familia txiro batean, larrialdiak eta pobretasunak ezagutzen bere haurtzaroan. 1911.ean, Dresde-ko Akademian ikasi zuen marrazkitzen eta pintatzen. Ahalegin asko izan eta gero ahal zuen Paris-era joatea, nondik, beste marrazkilarari hospetsuekin, "Simplicissimus" Berlin-eko aldizkarian karikaturak eta marrazkiak argitaratu bait zituen. Hortik, Alfred Kubin ezagutu zuen eta Alemaniara itzulirik, "Espresionismo" zirkingune kultural eta artistikoan sartu zen, garaiko aldizkarietan, bere lan grafikoak jarraituz.

1914.ean, gudua baitzen, frontera bidaltzen dute, non hainbat pairamen eta dolu jasan bait zuen, bere sentikortasun mamia gaizki igarotzen gerlaren izuak.

Espresionismoaren dekadentzian, "Dada" mugimenduen garailea zen eta beti borroka kultural eta politikoan jarraitu zuen. Zurich-en sortutako mugimendu kultural eta artisko honen mezulari Alemanian, askoz gehiago politizatuago bihurtu zen Berlinen, Alderdi komunistaren hurbil ibiltzen eta "Proletkul" teorien defendatzailea izaten.

Egin zituen karikatura antimilistaritak eta antiabertzaleak, oso hospetsuak ziren bere garaian, Alemanian eta Europan zehar "Dada" zirkingunean hedaturik. Bere aktibitate borrokalaria arazo asko eman zizkion, 1920.eta 1930.artean, zapalkuntzak eta hustiraketak salatzen.

Urte horien satirikorik handiena, "Neue Sachlichkeit" zirkingunean ere



Serie gráfica

hartu zuen parte. 1933.ean, naziek pertsegiturik, aldegin zuen Alemaniatik, EEUU-ra abiatzen eta bere borroka soziala jarraitzen. 1959.ean, bere sorterrira itzuliz, hilabete batzu eta gero hil zen, eragipen handia uzten Ameriketara eta Europan, bere marrazkiekin eta bere koardroekin.

G.Gili-k argitaratu duen liburua, marrazki satiriko-politikoaren sail bi dira non ikus baitezakegu. Grosz-en talentu eta ideologia politikoa. Bere marrazki krudelak, ikus dezakegun bezala, Alemania pre-naziko mito militaristak eta aber-tzaleak erdibitzen ditu, benetazko egoera ekonomikoa eta soziala erakusten. Marrazkilaririk krudelena bera, Hartfiel-ekin eta Otto Dix-ekin iraultza interesgarri bat eman zioten garaiko plastikari, "Espresionismoa" gaintitzen eta "Dada" iragar-tzen "avant la lettre", "foto-montaiak" eta beste espresabide berriak erabiliz, burjeseriari zioten gorrotoa erakusten.

Jon Sendagorta



NOTRE TERRE BASQUE
E. GOYHENECHÉ
SOCIÉTÉ NOUVELLE ÉDITIONS
RÉGIONALES ET DE DIFFUSION
PAU. Bigarren edizioa 1979.

Goyheneche berak, Euskal Herriko historia bat argitaratu zuen, Paben ere, oso edizio dotorea eta garestia, baita oso interesgarria ere historiazaleek dioten bezala.

Liburutxo hau oster, bestearen laburpen bat izango zen, argazkirik gabe eta textua askoz laburturik. 153 horrialde ditu liburu honek eta besteak, handiak, argazkiak kenduz, 1000 gutxi gorabehera izango zituen.

Euskal Herriko azkenengo historia serioa izanez, diodan bezala, oso gaitza omen da aurkitzea eta gaitzagoa ordaintzea, hamaika mila pezeta balio baitu. Orduan hemen aipatzen duguna, oso aurki-garria da eta merkea, bere textua lar eske-matikoa izaten laburregia, eta historian ikasita daudentzat, baliorik gabekoa.

Dena dela, dibulgazioko liburu bezala balio du, ooren ganean, Ipar Euskadiko hainbat ezagumen eta ezaugarri ematen baitzizkigu.

Hau izan da, niretzat, liburuaren baliorik handiena, Hegoaldean, nahiko gaitza baita Ipar Euskadiko historiari buruzko libururik topatzea.

Ipartar batek eginikako liburuak, ba, dibulgaziorako balio beza eta Ipar Euskadiko historia, bere bidez ikas dezagun, beste liburuaren, handiaren, salneurria jaitz dadin arte eta edizio merke bat egin dezaten arte.

Jon Sendagorta

pablo
ablo
a los
pueblos
paz i
pa lo
a los
tira nos

COLECCION NUEVA ESCRITURA
Euskal bidea argitaletxea.
IRUÑEA

Argitaletxe berri honek, bilduma honekin, poesiarako espresabide berriak nahi ditu hedatu eta poesia "letrista" edo "ikuskorra" egiten duen jendeari organo bat ematea bere lanak argitaratzeko eta ezaguterazteko.

Hemen aipatzen duguna, bildumaren bigarren lana da, valentziar talde batek antolatutako poetika ikerketen emaile bat. Bigarren lan hau, lehenengoa baino nasaia goa da baina mantentzen du bide berrien bilaketa, espresio poetikoentzako.

Argitalariek dioskuten bezala, bilduma honek gai hauk tratatuko ditu: "Poesía visual; Arte concreto; Proposals; Events; Poesía experimental, Música alternativa; Mail art; Cine experimental; Happenings; Performance Body Art; Arte conceptual; Espacialismo; Poesía proyectiva; Arte ótro; Post vanguardia; Comportamientos; Poesía-vida; Arte analítico; Arte de sistemas, etc."

Hots, espresabide berri guztiak sar-tzen dira talde honen xedeetan.

Beste aldetik, argitaletxe honen lanak ez dira denak dendetan salduko, batzu, suskriptoreentzat bakarrik izaki. Horre-gatik, interesatua izan daitekeen jendeak idatz dezala zuzenbide honetara:

Euskal bidea. Avda. Sancho el Fuerte 19-20 iz. Pamplona. Suskripzioa egin dai-teke sei bolumenentzako (1100 pta) edo hamabientzako (1900 pta). Ikusten du-zuen bezala, oso merkeak dira.

LIBRO DE CONJUROS
Agustín García Calvo
Lucina argitaletxea. MADRIL-79

García Calvo dugu, espainol kultura modernoan, pertsonaiarik begizorrotzena, korronte aurkako intelektuala, eta kultu-ra ezarriarentzako molestagarria. Honela, bere katedra utzi behar zuen, Tierno Galvan eta Aranguren-ekin batera eta Parisera abiatuz, urte mordo atzerrian egon zen bizi eta irakasten.

Bere obra hedatzeko argitaletxe bat sortu du, hau da, Lucina izenekoa, non bere liburu guztiek ikusiko bait dute argia bata bestearen atzetik.

Argitaletxe berri honetan "Del lenguaje" obra agertu da eta hau, "El libro de los conjuros", bigarrenez.

Irakurleak ezagutzen ez baditu, hauek dira beste obra ezagunak, Agustinek eginak: "Actualidades", artikulua politiko-koen eta kulturari buruzkoen bilduma, "Relato de amor", poema luzea, "Sermón de ser y no ser" bezala, erreflexio filoso-fikoa eta biziari buruzkoa, "Tres farsas trágicas y una danza titánica", antzerki-rako lau obra laburrak, "Lecturas presocráticas" filosofo presokratikoen irakur-keta bat, oso itxarona izan den liburuxka, Zenon, Heraklito, Parmenides eta beste batzuren pentsamenduaren irakurketa be-rezia, "Cuestiones de lenguaje", gramati-kari buruz eta lengoaiari buruzko artiku-luen bilduma, "Letras y figuras", Socra-tes-i buruzko ikerketa bar, Xenofonte eta Platon-en obra sokratikoei buruzko lanak, Vergilius-i buruzkoak, Don Shem Tob espainol judutar poetari buruzko bes-te lan bat, Sakespeare-ren sonetoak, gaz-telaniaz itzuliak eta zituen errima eta erritmua gordetzen, benetan izugarrizko itzulpen bat, "La Philosophie dans le bu-doír", Saderen obrari buruz, Rosalia de Castro-ri buruz eta beste saio literarioak, hots, liburu arras interesgarri, gai ainitz ja-goten baititu eta sakontasun handiz trata-tuak.

Beste obra bat, "Del tren" deritzon poemen bildumatxoa, "De los números", non linguistikaren ikuspegitik, zenbakien egitura funtsezkoak adierazten dizkigun, "Cartas de negocios de José Requejo" erreflexioen bilduma... etab.

Beste hainbat obra ahazten zaizkidala ba dakit baina, hemen aipatu behar du-dana "Libro de los Conjuros", liburuxko miragarri bat bezala aurkezten zaigu:

García Calvo-ren ardura adar bi izan ditu beti: lengoaia, eta hortik, poesia alde batetik, bera ere poeta bezala, eta gero, ikertzaile bezala, beste poeta hospetsuen edo bere gustukoaren ikasle eta sakontzaile. Beste aldetik, filosofia izan da bere kezka.

Agustín García Calvo

Libro de conjuros

"Libro de los conjuros" poeman, beste poemetan bezala, ardura bi hauk ikusten dira, poemak nahiko erreflexiboak izaten, forma, metrika eta errima gordetzen, bes-te aldetik. Poesia hauk sakonak dira eta gai berbera dute, ideia baten garapena izaten liburuxko guztia. Erabiltzen duen gaz-telania ere oso landua, zaindua da, sakona da, sakona eta garbia; ezpataren aho ba-tek bezala ebakitzen ditu kontzeptuak, sentiberak, gaztelaniaren funts biluzia erakusten. Hona hemen exenpluren bat:

Y por eso te llamo
madre a tí con todos
los nombres de mujer,
mi señora, mi reina,
mi dama esquiva,
mi negra tú, mi blanca,
y hasta si pudiera
atreverme alguna vez,
quizá te llamará su nombre también,
como ella se llamaba.

Jon Sendagorta



L.A.I.A.

L.A.I.A.

mintzo da

ZEIN DA GAURKO EGOERAN KASen BERTAN ERAMAN DEN EZTABAIDA eta hala ere, zein da erakunde horren barnean zuen egoera edo eta jarrera?

- Ez gaude KASen barnean, egoen ere kanpo gaude. Han gertatu zen halako prozesu baten ondorio gisa, bertan diferentzia politiko eta ideologikoak garrantzitsu samarrak zirelarik haien barnean, gure artean alegia.

Diferentzia ideologikoak H.B.aren eta E.H.B.N.aren kontzeptio bera dira, bestalde ba daude, bereziki alderdi eta, oro har prozesu iraultzaileen ikuspunduan eta honako prozesu iraultzaile hontan, burrukarako tresna eta mesa erakundearen jokabidearen eta KASen kontzeptio berraren. Gure aburuz, alderdia prozesu iraultzaile orotan tresna arabat inportantea da. Halere, egungo alderdiaren kontzeptioa KASen barnean, alderdiaren kontzeptioa likidazionista da, bigarren mailako eginkizuneko, edozein masa erakunde, hauzok elkartek, dela erakunde sindikala, dela beste edozein gisako masa tresna bezalakoa. Politik eginkizunetan alderdia beraz, beste hainbeste aparailu batzuren artean hahastekaturik agertzen da. Dago-

kien protagonismotik langile-alderdiak aldentzea, langile-klasea erasotzea da, gehienetan burjeseriatikia aintzindaritzan buruzagi jarritz, egun hemen bihar han dabil-tzan koadro tekno-burokratikoak, alegia, nor bere uneko abagadune politikoen bila. KASentzat, abangoardiaren tresnak, tresna zabal, populistak dira, haietan jende eta instantzia-molde guziak nahasten direlarik, klase perspektiba, langile klasearen nagusigoa galduz. Honelako KASen ikusgune hau, prozesu iraultzailearen ikusgune mesianikoa eta hirugarren mundutakoa da. Guk geuk ulertzen dugu ezen populismoaren erpinean, herritar burrukaren erpinean dagoela langile klasea eta ez guttiengo salbatzaileak, ordeztzen dituen eta sardinak burduntzitik ateratzen dizkien langile klasearen zerbitzupuan. Esan denaren aurka, KASen alternatiba onartzen segitzen dugu baina hura sakontzearen eta hari klase eduki indartsuago eta gogorragoa eta jite burjesdemokratiko ttikiagoarekin, ematearen aldeko gaituz. Laburragotuz eta KASen puntuetako langileen bizi-kondizioen hobakuntzari buruz diotelarik, adibidez, izkirimiri erraxa edo txiste ona iruditzen baitzaigu. Langileen bizi-kondizioen hobakuntza, honela esateak, jarrera iraultzaile baino, karitatezko obra irudiago du, zeren eta.

Euskal Herriko langile klaseak nahi baitu bere errebindikapenei esplizitukiago atxekitzea, kasu ematea.

KASen eta gure arteko diferentziak, batzarreari dagokionez, KASen beraren ikusguneari zegozkion pixkat. Ulertu egiten zuten H.B. a mugimendu politikoa zela, bertan alderdiak suntsitu beharrean daudelarik independenteen onuratan; alderdiok, bestalde, interklasista eta populista. Guk H.B. a defendatzen genuen herriaren batasunezko proiektu gisa, baina linea politiko eta estrategikoen arteko diferentziak argi asko utzi beharrez, estruktura populista, arradikalista eta nazionalista batzuren menpean eskuz lotu-

rik egon gabe. Langile klaseari arnaguztiak kentzen ahalegintzen ari zaiola ba dago frog nabaria. LAIAK, ESBk, eta ANVK aurkezten dituzko legezko koalizioa izatetik hautate pilaketa izatera iragan da, halakoa baita alderdienganako mesfidantza.

Batzarrearen gaiari berriro leturik, guk geuk ulertzen dugu tresna estrategikotzat ezin daitekeela har batzarrea, ezin daitekeela har kontraparlamentu gisa eta modu horretaz hartzen segitzen da. Delako batzarrea HBk eta udal hautatuek soil soilik sostengatzen dute. Geuk uste, batzarreak ez daukate izate zentzurik, Goi-Soviet bailitzen planteiatzen den artean. Indar erlezioa eta masen oraingo burrukamaila diren bezala direla, batzarreari kontrabotere huts eriztea berealdiko errakuntza estrategikoa da. Hortik bideratzea, oraingo herri eta langile-kontrabotere desantolatuaren karikatura egitea besterik ez delako, asanbladen karikatura, alegia, errealitatea mitifikatuz gain.

Batzarrearen oinarria hautatuak dira, baina beren errepresentagarritasuna epaigai jartzen bada, demokrazia ordezkatu eta ez zuzenaren bidez hautatuak direnez gero, botu ordezkatuaren bidez datorkigu errepresentagarritasun hori baina aldiz, demokrazia zuzenean oinarritzen omen da batzarrea.

Horregatik, hau guztiau kontradizio bat batekoa gertatzen da. Egungo ez gaude iraultza aurreko prozesutan, baizik eta egunetik egunera, kaleak berak gero eta argiago erakusten digunez, masa burrukaren beharaldian gaudela eta horrek berorrek kondizionatzen ditu batzarrearen egiturak.

ZEIN DIRA H.B.aren barneko diferentziak. EZTABAIDA POLITIKOAREN BAZTERTZEA.

H.B. barne talde kritikoa gaituz. Gure behin betiko jarreraz Konilla Zentralak erabakiko du hortaz. Orain guttirarte izan dena, Herri-

Langileen bizi-kondizioen hobakuntza, honela esateak, jarrera iraultzaile baino, karta-tezko obra irudiago du, zeren eta.

Euskal Herriko langile klaseak nahi baitu bere errebindikapenei esplizitukiago atxekitzea, kasu ematea.

Gu garenok, eritzi sinpleek maiztan bultzaturik, gure ustea sortzen dugu hainbat arazotan. Herri maila askotan, gaurko politikari buruzko eztabaidetaz arituz gero behintzat, gauzak errazegi eta egiaren eta eztabaidaren arlotekeriak egiten ditugu. Kaleko jendeak ez omen daki gaikoaren oinarria non dagoen. Artikulu hontan, H.B.z arituko garenez, berdintsu gertatzen dela han esan dezakegu, hau da, herriak, eztabaida eza, sinplekeriaz koformatu beharra du. Gure herriko sektore garrantzitsu batek E.T.A.ren eritzia nolakoa den jakinez gero, aski du eztabaida guztiak antzarrak ferratze- ra bidaltzeko. Dudatan badago, hor daude beste haiek, beraien eraginez eta indarrez eztabaida fruitugarriak heldugabetasunean errotik mozturik

geratuko dira. Geroztik, tresneria guztia hasten omen da lanean zeren ETA, burruka abertzale guztien txapelduna izanik —eta ez dugu dudarik— sinplekeria eskizofrenikoren marra ukitu eta gainditzen baita. Zenbait presupostu edo aurreritziakin bat ez datorrena, maizetan, nahiz eta guztiz behin-behineko taktika batez oinarriturik izan, potentzia atzerritar baten ajendezalea ez bada ere, erreformismoaren txontxongiloa lepotik dindilizka ba daramala esaten zaio. Erreformista, likidazionista edo eta burruka harmatuaren etsai ezkutatua. Horregatik hain zuzen, erakunde harmatuarekin ados ez dagoenak iraultzailearen, antierreformistaren eta antipaktistaren gutun lakratua eraman behar du kolkoan ageriz, be-

re ideologiaren barnean mirrina ere aldatu ez duela erakutsiz.

Herri honetako eztabaida politikoa az erraiek deus esateko edukiko balute, eztabaida politikoa egiazko lekuetan aspaldidanik eginda legoke eta gau egunean ez ginatke agian infiniturantz garamatzaten frustrazio guztiak ugaltzen ari eta behar bada, beste sektore batzuek zera erakutsi beharko dute: Ez direla berriek objektiboki erreformaren lana errazten ari, ez direla burjeseria indartzen ari, ez daudela burjeseriaren boterea denbora luzez ezartzeko ahalegin objektiboak egiten, eta matuaren oinarria ere sunsitzen ari.

E. H.

Batasuna uzten ari da. Bere barneko estruktura, bere barneko konposaketa aldatze ari da. Estrukturari buruz zera derrakegu: independenteen koalizio bat bilakatzen ari dela. Ohartzen ginen H.B.n barne egin behar zen estrukturaketa berriaz, gure linearen planteiamendu politikoaz, gure programaz, onartzen al zenentz ikus egitea etab. Zer egin behar genuen parlamentuaren arazoarekin, problema oso garrantzitsu asko egon da eta haietaz erabaki batzu onartu behar ziren. Orduan zera, lehenik akordio politiko-etara heldu beharrean geunden, geroz estrukturaketaz hitzegiteko. Baina alderantziz izan da prozedura. Lehenik estruktura batzu inposatu dizkigute arazo politiko guztiak baztertu izanki. Ez da egon linea politikoen arteko akordiorik, inposaketa baizik.

Eztabaida politikoa guztiz bazterturik geratu da. Gaur egunean ere, ez dakigu parte hartuko dugun ala ez, ez dakigu parlamentura joango garen ala ez eta, auteskundeak gain gainean dauzkagu. Hau guzti honen aurretik estrukturen problemak atara dituzte eta delakoetan alderdiak difuminaturik agertzen dira. Guk ez dugu halere, independenteen mugimendua ezeztatu edo ukatu, indarberritu dugu baina guretzat grabena, eztabaida politikoaren bazterketa izan da.

EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA ETA PROGRAMA: Langille mugimenduen beheraldia.

Honetaz ere zenbait puntutan ez gaude ados gainerako indarrekin baina hala ere gure ezberdintasunok ez dira agian oso grabe izanen, behar bada hau guztionetan garran-

derdi erreformisten eta euskal burjeseriaren segizioa eginez. Gure ustez, oraingo egoeratik ateratzen dugun ondorio nagusia zera da: K.A.S.- en alternatiban barne dauden aska-

Uste dugu ere, burruka luzea baita, instituzioetara sartu beharra dagoela, baina kasu!, honek esan nahi ez baitu posibilismoan aritzea edo paktu politika egitea eta haietara sartzeari berdin direnik.

tzitsuena ondoriotan bilatu behar ba, zeren ondoriook erabat desitxuratu eta espreski gaizki erabiliak izan dira zenbait sektoretan. Gure ustez Suarez-en erreforma zenbait pausu aurrera eman du, nahiz eta gu erreformaren kontra gogor jokatu; bestaldetik, langile mobilizazio eta burruketan beheraldia ba dagoela ere ikusten da, asanbladen mugi menduari berdin gertatzen zaio. Erreformaren aurrerapenari euskal burjeseria autonomizale eta alderdi erreformistek objektiboki laguntzen diote. Indarren erlazio honek zerera garamatza: hau da, ez delakoa, denbora laburrean aldatuko eta "apurtura" ez dela emango epe motzean. Baina guztionetatik ateratzen ditugun ondorioak eta E.E.k atera zituenak ez datoz bat. Gureak aldiz guztiz kontrakorrak dira. 77.ko Ekainean E.E.k erreforma eginik zegoela kontsideratu zuenean, bere praktika osoa posibilismo eta kontsentzupean jarri zuen, erakundeetan sartuz, kontsentzuz gain eraturiko politika aurrera eramanez, eta al-

tasun demokratiko guztekin bat egonik eta hortaz konturaturik, iragapen sozialista batetan oinarriturik, programa gogortu behar da, zeren eta burruka luzea baita, klasezentu gehiago eman behar diegu geure errebindikapen ekonomiko eta sozialei.

POSIBILISMOARI EZ

Era berean, gu edozein gisa tako politika posibilista eta erreformistatik urrun gaude, zeren eta uste baitugu posibilismoa posible dena eskatzea dela, burjeseria emateko prest dagoena dela, kapital handiarekin, erreformismoarekin eta besterekin kontzertatu egitea, alegia. Gu geu, edo zein paktu politikaren kontra, edozein posibilitatearen aurka gaude; gogorki jokatu beharra dago, masa mobilizazioen politikan eta bai instituzioetara sartzeko politikan ere aritu beharra, halere.

Uste dugu ere, burruka luzea baita, instituzioetara sartu beharra dagoela, baina kasu!, honek esan nahi ez baitu posibilismoan aritzea edo pak-

tu politika egitea eta haietara sartzea berdindirik. Zera esan nahi du, burruka luzea izanen baita sartzea, erregimenaren kontra tresna eta baliabide guztiak erabiltzea, sistimaren politika salatzailea, konstituzio-kontrako eta estatutu-kontrako politika Eusko Parlamentutik bertatik egiteko, hots, azken batean masa burrukaren sostengua eta euskarria besterik ez den politika

gisako soluzioaren maliobrak saltzea, eta hoiekin batera, erreformismoaren segizio jokoa, une hontan ditugun baino askatasun askoz ere haundiagoen premia.

Posibilistak aldiz, etendura demokratikoa paktatzen dutenak dira, epe laburrean posible deritzotelako hari; posible eritziko ez baliote, haien puntuetan apalduko lirake.

garrenean ospatuko dugu.

ZER NOLAKO JARRERA LUKE LAIA-K, MAHAI NAZIONALAK EZ PARTERIK HARTZEA ERABAKIKO BALU?

Komite zentralak erabakiko luke. Hala eta guziz ere, egiazko problema hondokoa dugu, zergatik ideologia burjes-txikiak garbituz doan apurka-apurka langilegoaren praktika eta ideologia, alegia, Guri hauteskundeetara begira interesatzen zaiguna parlamentura joatea da, ezker abertzalearen gainerako indarrekin koalizio eginez. H.B. gaudela ala ez gaudela, H.B.-ren programa defendatuko dugu edo hala behar bada, gogorragoren bat. Gure ustez, estruktur akordio batzutarra ailegatzea dugu garrantzitsuen.

Alta bada, ETak ez du LAIA jazarri; halere, diputazio eta junten arazoarekin batera sortutako diferentziaz geroztik ofentsiba baten hasiera modukoa edo, kontsidera daiteke.

instituzionala. Eusko Parlamentura sartzeak inportantziarik badauka, Eusko Parlamentua foru inportantea delako da, bertan klase kontradizioak, bestelako estrategia eta alternatibak argi eta garbi agertzen baitira, eta guri interesatzen zaiguna klase jarrerak zeintzu diren erakustea da, edo bestela esanda, UCD-ek-PNV-ek krisiari eman nahi diote

ETA

Alta bada, ETak ez du LAIA jazarri; halere, diputazio eta junten arazoarekin batera sortutako diferentziaz geroztik ofentsiba baten hasiera modukoa edo, kontsidera daiteke.

JARRERA KONKRETUAK

Komite zentral batetan hartuko dira honako hauek eta hura gutxi-

M. Aldana
T. Trifol



Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.



**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**



**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA**